

Testu ekoizpenaren ebaluazioa Lehen Hezkuntzan

2006-07 ikasturtea

- Euskara -



Nafarroako Gobernua
Hezkuntza Departamentua

Zerbitzuak Ikuskatzeko eta Ikuskapen
Teknikorako Zerbitzua

Lehen zikloa 3. or.

Bigarren zikloa 17. or.

Hirugarren zikloa 34. orr.

**ERANSKINA. Hobekuntza lerroak ezartzeko
orientabideak testu idatzien ekoizpenean** 48. orr.

Lehen zikloa

1. EMAITZAK	4. orr.
2. IKASLEEN IDAZKIEN AZTERKETA KUALITATIBOA...	6. orr.
2.1. Nola idazten dute helburuak lortzen dituzten ikasleek? (III. eta IV. mailak)	6. orr.
2.2. Nola idazten dute helburuak lortzeko bidean dauden ikasleek? (II. maila)	8. orr.
2.3. Nola idazten dute helburuak lortzen ez dituzten ikasleek? (I. maila)	10. orr.
3. HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK	13. orr.

1- EMAITZAK

Egokitasuna: luzera egokia eta hizkuntza idatziaren berezko erregistroa erabiltzea

Alderdi hau balioesteko, kontuan hartuko da idazkiak luzera egokia duen eta ikasleak hizkuntza idatziaren berezko erregistroa erabiltzen duen edo, aitzitik, ahozko eta lagunarteko hizkuntzan ohikoagoak diren kodeak erabiltzen dituen.

Ikasle gehienek testuen helburuei egokitutako luzera duten testuak idazten dituzte. Erabilitako erregistro motari dagokionez, emaitzak honako hauek dira: lagineko ikasleen idazkien %61ean hizkuntza idatziaren berezko erregistroa erabiltzen da. Ikasleen %25ek ahozko eta lagunarteko erregistroetan ohikoak diren esapideak erabiltzen dituzte. Ikasleen %14k ahozko eta lagunarteko hizkuntzaren kodeak idatziz erabiltzen dituzte.

Koherentzia: zentzu orokorra

Alderdi hau balioesteko, kontuan hartuko da, testuaren zentzuari dagokionez, argia edo, aitzitik, nahasgarria den.

Idazkien %48an argi antzematen da zein den testuaren zentzu orokorra (pertsonea eta egoeren aurkezpen argia; korapiloa eta amaiera koherentea). Idazkien %34an antzematen da zentzu orokorra, baina izan badira testuaren ulermen orokorra zertxobait oztopatzen duten alderdi nahasgarri batzuk. Idazkien %18 modu nahasgarrian eta ez oso argian idatzita daude.

Testu idatziaren barne-kohesioa

Alderdi hau balioesteko, kontuan hartuko da testua perpaus bereizgarri eta zentzu osokoetan antolatu den, ekintzen sekuentzia logiko-denborazkorik dagoen (jauzirik eza, adierazgailu eta lokailuen erabilera, etab.) eta, azkenik, aditzaldiak oker erabiltzearen ondoriozko denbora-jauzirik dagoen.

Idazkien %55 aipatutako irizpide horiei jarraikiz idatzita daude (irizpide horiek testuari barne-kohesioa ematen diote). Idazkien %27an barne-kohesioko akatsen bat dago (jauziak kontakizunean, jauziak denboran, etab.). Idazkien %18an testuari barne-kohesioa ematen dioten osagaietan akatsak ugari dira.

Testuaren zuzentasuna

Alderdi hau balioesteko, funtsean testuaren irakurgarritasunari erreparatuko zaio. Ortografiari dagokionez, fonemen eta grafien arteko elkarrekotasunari eta hitzen bereizketari erreparatuko zaio eta sintaxiari dagokionez, orobat, perpausak zuzen eraturik dauden edo ez (subjektuaren eta predikatuaren arteko komuntadura...).

Ikasleen idazkien %58 idatzita daude ziklo hau bukatzean eska daitekeen zuzentasun-mailaren arabera. Hots: hitzen bereizketa, fonemen eta grafien arteko elkarrekotasuna eta sintaktikoki zuzenak diren perpausak. Idazkien %30etan akatsak daude alderdi horietan eta %12, berriz, oso gaizki daude idatzita.

Erabilitako baliabideen aberastasuna


Alderdi hau balioesteko, kontuan hartuko dira lehen zikloa bukatzean erabilitako hiztegiaren aberastasuna, kontakizunaren irudimena eta esan nahi zen hura adierazteko hizkuntza erabiltzen jakitea.

Ikasleen %49k beren idazkietan baliabide horiek erabiltzen dituzte, egoki eta zikloan espero daitekeenaren arabera. Ikasleen %34k parte batean erabiltzen dituzte (hiztegia egokia da, baina mugatua; istorioak idazten dituzte, interes handirik gabeak eta bere ideiak adierazteko helburuarekin hizkuntza erabiltzeko erraztasunik gabeak). Ikasleen %17ren testuetan hiztegi urria da eta kontatutako istorioa adierazteko hizkuntza erabili behar dutenean zailtasun larriak dituzte.

Balioespen orokorra

Idazkiaren balioespen orokorra egiteko, kontuan hartu dira gorago aurkeztutako alderdi guztiak, hau da, egokitasuna, koherentzia eta barne-kohesioa, zuzentasuna eta baliabideen aberastasuna. Horretaz gainera, testuaren plangintza ere hartu da kontuan.

Ikasleen %47k ziklo honetarako ezarritako mailak argi eta garbi gainditzen dituen kontakizun bat idatzi dute. Ikasleen %33k doi-doi lortu dute maila edo lortzeko bidean daude eta ikasleen %20k ez ditu inolaz ere gainditu idazmenean ziklo honetarako ezarritako mailak.



2- IDAZKIEN AZTERKETA KUALITATIBOA.

D hizkuntza ereduko ikasle askok euskara ama hizkuntza dute edota eskolatik kanpo ohikotasunez erabiltzen dute. Beste ikasle askok, aldiz, ez dute euskara ama hizkuntza edota ez dute eskolatik kanpo ohikotasunez erabiltzen eta, lehen zikloaren bukaeran, beste hizkuntza bat ikasteko prozesuan bete-betean daude murgildurik.

Lehen zikloaren bukaeran, batzuen eta besteen idazkien arteko ezberdintasunak nabarmenak dira; aipagarrienak, zuzentasun gramatikalarena eta hiztegiaren aberastasunarena. Oro har, lehen zikloaren bukaeran, euskara bigarren hizkuntza duten ikasleek akats gramatikal esanguratsuak egiten segitzen dute eta haien hiztegia ez da hain aberatsa. Logikoki, etapan aurrera egin ahala akats gramatikal horiek gutxituz joanen dira eta hiztegia gero eta aberatsagoa izanen da.

Ikastetxeek bi motatako ikasleak har ditzakete: ama hizkuntza nagusiki euskara dutenak edo hizkuntzan murgiltzeko ereduari eskolatu diren ikasleak. Horrek guztiak ondorioak izan ditzake hobekuntza planetan (unerik une, zuzentasun gramatikalak eta baliabide sintaktiko eta lexikoen aberastasunak gorabeherak izan ditzakete).

2.1- Nola idazten dute helburuak lortzen dituzten ikasleak?

Egokitasuna ikuspuntuari dagokionez

Oro har, helburuak lortzen dituzten ikasleen testuak luzeagoak dira beheragoko beste maila batzuetakoak baino; informazio gehiago eta ñabardurez beteagoa dute (200 hitz ingurukoak dira). Hizkuntza idatziaren ohiko kodea erabiltzen dute, betiere ziklo honetako eskakizunen arabera. Ez da lagunarteko esapiderik, ezta ahozko hizkuntzan ohikoak diren egiturak ere.

Koherentzia ikuspuntuari dagokionez

Kontakizunak errazak dira (ziklo bukaeran halakoak idaztea espero da) eta narrazio testuen berezko barne-egitura dute. Gainerako mailetan ez bezala, narrazioen hasierako perpausen bitartez irakurlea kokatu egiten da eta pertsonaiak nor eta nolakoak diren deskribatzen da. Adibidez, protagonista nola deitzen den, nolakoa den edo non bizi den agertzen da. Hasierako lau perpaus gutxienez horretarako erabiltzen dira, protagonistari zer gertatzen zaion deskribatzen hasi aurretik. Ikus, esate baterako: *“Bazen kaleko txakur bat ez zuen familiarik, Xarpa izena zuen eta konten zegoenean buztana mugitzen zuen. Alaia zen eta lotxatua, ere bai ona. Askok gustatzen zaio jostatzea”*.

Horren ondotik, behin irakurlea kokaturik dagoela, maila honetako ikasleak ekintzak deskribatzen hasten dira: oro har, ez dira argumentuaren lerro bakarrera mugatzen (ematen du zenbait argumentu haztatzen dituztela, behin betikoa topatu arte), lerro hori lantzen dute eta azkar iristen dira bukaerara, maiz zakar samar bada ere. Askotan ez du zerikusirik jarraitu duten argumentu lerroarekin. Badirudi kontaktzen ari denetik kanpo

bat-batean planteatutako arazoa konpontzen duen zerbait gertatzen dela. Hori hala izanik ere, esan daiteke lortutako maila nahikoa dela lehen ziklorako, izan badirelako gutxienerako aurkezpen bat, gutxi gorabehera koherentea den korapiloa eta amaiera. Beraz, narrazioek badute zentzu orokorra eta barne-logika jakina.

Zenbaitetan, paragrafoetan antolatutako egitura ageri da idazkietan, maila honetan orokorra ez bada ere. Hiruzpalau paragrafo egiten dituzte. Hala egiten dutenean, hots, idazkia paragrafokan antolatzen dutenean, paragrafo bat ideia bat izan ohi da.

Kohesioa ikuspuntuari dagokionez

Eskuarki, maila honetako testuak zentzu osoko unitateetan zatiturik daude. Hala ere, testu anitzetan ez dira perpausak puntuen bitartez bereizten. Maila honetako testuren batean, orobat, bereizteko oso puntu gutxi ageri da. Ia-ia ez dago komarrik perpausen artean, beharrezkoak izanagatik ere. Maila honetan ageri dira galdera eta harridura markak, beharrezkoak direnean.

Barne-kohesioari dagokinez, esan daiteke, oro har, perpaus batetik bestera igarotzerakoan progresio tematikoa dagoela. Ez da ez jauzirik, ez hutsunerik antzeman. Narrazioaren egitura kronologikoa errazten duen denborazko adierazgailuren bat erabili ohi dute, hala nola, *behin batean, egun batean, beste egun batean, egun batzuetara, orduan, gero, ondoren, bat-batean, e.a.* Horiexek dira erabilienak. Horietaz gainera, beste baliabide batzuk erabiltzen dituzte testuari kohesioa emateko. Bereziki, perpaus perpaus eta arian-arian, aberasten joaten den eduki tematiko bera mantentzea; ondoko adibidean ikusten da nola erabili den baliabide hau testuari koherentzia eta kohesioa emateko:

“Bazen behin Ortzi txakur txiki eta azkarra. Jauregi handi batean bizi zen, errege-erreginek bizi zen.. Grisa da Ortzi. Beste hamar txakurrekin bizi zen. Egun batean Ortzi erregearekin joan zen oihana ezagutzera. Abionetatik jaitsi ziren hirurok pilotoa, Ortzi eta Erregea. Beranduago gida iritsi zen...”

Aurreko adibidean ikus daitekeenez, ikasleak zenbait baliabide erabiltzen du testu kohesionatua lortzeko. Lehenik, denborazko adierazgailuak erabili ditu narrazioaren denboraren igarotzea konpontzeko (zer gertatzen den aurretik eta zer ondotik): *“behin”, “Egun batean”, “beranduago”*. Testu-zati hau goragoko kurtso batekoa izan balitz, kohesio gabeziak izanen lituzke (behar ez diren errepikapenak, etab.). Hala ere, kohesioaren ikuspuntutik begiraturik, testu hau ontzat eman daiteke lehen zikloan.

Oro har, aditzaldiak egoki erabili dira, narrazioak iraganean idatzi direlako eta narrazioan zehar aditzaldi hori erabili delako beti.

Zuzentasuna ikuspuntuari dagokionez

Zuzentasunari dagokionez, esan daiteke maila honetako idazkiak egoki aurkeztu direla, ez dela arazo grafomotorrik antzeman, irakurtzeko moduko letrarekin idatzi direla eta trazaketaren kalitatea onargarria dela. Ortografiari dagokionez, azpimarratzekoa da idazkietan fonema-grafia elkarrekikotasuna eta hitzen bereizketa errespetatu direla. Horretaz gainera, maizenik erabilitako hitzen ortografia naturala erabili da.

Ziklo honetako oinarrizko arau ortografikoei dagokienez, puntuaren ondoren letra larriak erabiltzen dituzte, baita izen berezietan ere. Perpausak ongi eratu dira. Perpaus bakunekin batera, ongi eraturako mendeko perpaus batzuk ere idatzi dira, hala nola: *“Bazen behin Lai izeneko txakur bat abandonatuta zegoena”*.

Baliabideen aberastasuna ikuspuntuari dagokionez

Maila honetako narrazioak beheragoko beste maila batzuetakoak baino irudimentsuagoak eta landuagoak dira. Testuetako hiztegia askotarikoa eta ziklo honetan ohikoa dena da. Gorago esan den bezala, sintaxiko eta hiztegiko baliabideak erabili dituzte narrazioari askotarikotasuna eta aberastasuna emateko. Esate baterako: *“Bazen behin txakur bat polit deitzen zena. Marroi-beltz koloretakoa zen eta kobazulo batean pozik bizi zen. Egun batean lorategi batera joan zen”*.

2.2- Nola idazten dute helburuak lortzeko bidean dauden ikasleek?

Egokitasuna ikuspuntuari dagokionez

Oro har, testuak goragoko mailakoak baino askoz ere laburragoak izaten dira. Beraz, goragoko mailetan baino informazio gutxiago dute eta hura ez dago hain zehaztua (narrazioan 120 hitz inguru erabili dute, nahiz eta batzuen eta besteen artean ezberdintasunak izan; nolana ere, 75 hitzetatik 130 hitz bitartean erabiltzen dituzte). Eskuarki, hizkuntza idatziaren ohiko kodea erabiltzen dute (ziklo honetan eskatutakoa kontuan hartu behar da). Askotan, ikasleek ez dute behar bezala idazten eta euren lanetan ahozko kodearen eragina antzematen da. Esate baterako: *“Egun batean bazen txakur bat bere jabeak asko maitezutela pozik biziziren aizpak askomaite zuten. Egunero egunero mendira joaten ziren batzutan ere ondartzara joaten ginen”*. Adibide honetan ikus daitekeen bezala, ikasleak ez daki behar bezala idazten, hau da, hitz egiten duen bezala idazten du.

Koherentzia ikuspuntuari dagokionez

Narrazioak xumeak dira (halakoak izatea espero da zikloaren bukaeran). Narrazio testuen ohiko barne-egitura dute eta goragoko mailan deskribatutakoak baino xumeagoak dira, ez hain konplexuak. Maila honetan bi egoera gertatzen dira. Zenbait narrazioen hasieran perpaus batzuk ageri dira, irakurlea egoeran kokatzeko eta pertsonaiak zein diren eta nolakoak diren esateko. Horretarako bizpalau esaldi erabiltzen dituzte, ekintzak deskribatzen hasi aurretik. Aurrekoa bezain ugari gertatzen den gainerako egoeran, narrazioa zuzenean hasten da ekintzarekin, pertsonaiak aurkeztu gabe. Ikus dezagun ondoko adibide hau: *“Behin batean txakur galdubat ikusinen eta adotatuegin genuen”*; hemen narrazioak segitzen du eta txakurraren gorabeherak eta abenturak deskribatzen dira. Hori hala izanik ere, maila honetan egoerarik ohikoena da pertsonaia labur deskribatu ondoren berehala ekintzara igarotzea: *“Behin batean bizi ziren txakur asko lagunak zirela eta orduan batek ezur bat hartu zuen eta txakur bateri eman zion”*. Hori egin ondoren, istorio osoa askatzen da. Istoriok errazagoak izatean, oso argumentu oinarrizkoak izatean eta, bereziki, testu laburragoak izatean, argumentuaren lerroa

bakarra da. Amaierari dagokionez, goragoko mailetan esandako bera baieztatu daiteke: argumentuaren ekintzen deskribapen xume bat egin ondoren, berehala amaiera ematen zaio narrazioari, modu zakarrean. Askotan, ekintza horiek ez dute zerikusirik jarraitutako argumentuaren lerroarekin; ematen du kontatutakotik kanpora gertatzen den zerbait bat-batean gertatzen dela eta planteatutako arazoari soluzioa ematen diola. Batzuetan soluzioa aspergarria da oso. Esate baterako: *“Eta esan zioten ezin da txakurrekin joan eta abandonatu zuen txakurra azkenean ez zuen abandonatu eta festa bat ospatu zuten!”*.

Egituran ia-ia ez dago paragraforik. Hala ere, idazkia paragrafoen arabera antolatzen denean, paragrafo horiek ez zaizkio paragrafoa-idea egiturari lotzen (goragoko mailan gertatzen denaren alderantziz).

Kohesioa ikuspuntuari dagokionez

Testua zentzu osoko unitateetan zatikatzeari dagokionez, arazoak maila honetan hasten dira. Oso luzeak diren perpausak ugariak dira, idazkeraren estiloa hobetzeko perpaus errazagoetan zatitu beharrekoak. Esate baterako: *“Egun batean gizona Mikeli non zauden Mikel non zauden Miken eta Miken joan zen etxetik 10 urte pasata etorritzen Mikel etorritzen Mikel eta gizona Mikel!”*. Alferrikako errepikapenak alde batera utzita, antzematen da perpaus errazagoak eginez gero, idazkiak kalitate eta estilo hobea izanen lukeela. Idazkietan puntu gutxi erabiltzen da perpausak bereizteko (hirutik bost puntu bitarte, idazki bakoitzeko). Perpausen artean apenas ez da komarrik ageri, beharrezkoak badira ere. Maila honetan ez da galdera eta harridura markarik ageri, beharrezkoak direnean.

Barne-kohesioari dagokionez, oro har, perpaus batetik bestera igarotzean badago progresio tematikoa, argumentuaren aurrerapenean jariotasun gutxi antzematen bada ere. Hala ere, irakurleak zenbaitetan estali beharreko jauzi eta hutsune txiki batzuk antzematen dira. Denborazko adierazgailuen erabilerari dagokionez, bi egoera gertatzen dira. Batzuetan adierazgailuak sartzen dituzte, aurretik deskribatutako goragoko mailan gertatu bezala, baina beste kasu batzuetan ikasleek denborazko adierazgailu gutxiago erabiltzen dituzte eta horrek ematen du denborazko sekuentzia homogeneoa erabiltzen dutela (gauza baten atzetik bestea gertatzen dela ematen du), eguneroko bizitzaren denborazko egiturari erreparatu gabe. Honako hau izan da idazkiaren kalitatearen bilakaeraren adierazlea. Bestalde, testuari kohesioa emateko beste baliabide batzuk erabiltzen dituzte. Berezi, perpaus perpaus eta arian-arian, aberasten joaten den eduki tematiko bera mantentzea.

Oro har, aditzaldiak egoki erabiltzen dira, narrazioak iraganean idatzi direlako eta narrazioan zehar aditzaldi hori mantentzen dutelako. Hori hala izanik ere, maiz narrazioak iraganean (bazen behin txakur bat...) hasten dira, baina orainaldian dute jarraipena. Beste batzuetan, bi aditzaldiak konbinatzen dira narrazio osoan. Ikus ondoko adibide hau: *“Bazen behin txakur bat txuri izena zuela. Txuri marroia zen, begian mina zeukan etxe zahar batean bizi da eta gustokoa du jatekoa tozinoa eta ogia”*.

Zuzentasuna ikuspuntuari dagokionez

Oro har, zuzentasunari dagokionez esan daiteke maila honetako idazkiak egoki aurkeztu direla, ez dela arazo grafomotorrik antzematen (edo oso-oso gutxi direla), irakurtzeko moduko letrarekin idatzi direla eta trazaketaren kalitatea onargarria dela. Ortografiari dagokionez, azpimarratzekoa da idazkietan fonema-grafia elkarrekikotasuna eta hitzen bereizketa errespetatzen direla. Horretaz gainera, maizenik erabilitako hitzen ortografia naturala erabili da. Hori hala izanik ere, maila honetako idazkietan egunero erabiltzen diren hitzetan akats ortografiko gehiago dago goragoko mailetako idazkietan baino, aldaketak handiak badira ere ikasle batetik bestera.

Ziklo honetako oinarritzko arau ortografikoei dagokienez, ikusi da puntuaren ondoren letra larriak erabiltzen dituztela, baita izen berezietan ere. Maila honetako idazki askotan hizkuntza idatziaren maila ez da oso ona. Ikus ondoko adibide hau: *“Aspaldi aspaldian Jaķo izenekō txakur bat txakur etxe batean bizi zela bere Familiareķin eta egun batean Mendira Joan ziren eta esan zuen Jaķok Ze polita den mendia hauez? Ama esan zuen Jaķok eta Jaķok txoriaķ harapatzen eta 1000 txori arrapatu zuen.”* Koherentzia eta kohesio mailako akatsak egiten dituzte.

Baliabideen aberastasuna ikuspuntuari dagokionez

Maila honetako narrazioak goragoko beste maila batzuetakoak baino irudimentsuagoak eta landuagoak dira. Testuetako hiztegia ez da askotarikoa; pobrea da. Oro har, narrazio interesgarriak, ongi egituratuak eta ongi idatziak lortzeko baliabide gutxi erabiltzen dituzte (kontuan izan dezagun 2. kurtsoko ikasleez ari garela).

2.3- Nola idazten dute helburuak lortzen ez dituzten ikasleek?

Egokitasuna irizpideari dagokionez

Oro har, testuak aurreko mailakoak baino askoz ere laburragoak izaten dira. Beraz, askoz ere informazio gutxiago dute eta hura ez da hain zehaztua (narrazioan 100 hitz inguru erabiltzen dituzte). Eskuarki, ikasleek ez dute behar bezala idazten eta euren lanetan ahozko kodearen eragina antzematen da. Esate baterako: *“Lakĳ txakurbatzen eta egun Batea anķa autxizuen. eta egun Batean joan zen etxetik. Bein lakĳķ mapa Bat aulķĳitu zuen.eta nola lakĳiri gustatzen zaio abenturak joan zen ķobazuloa”.* Adibide honetan ikus daitekeen bezala, ikasleak ez daki behar bezala idazten, hau da, hitz egiten duen bezala idazten du. Beraz, testuinguruari gutxi egokitzen zaizkion testuak dira, ez baitute kode formalik erabiltzen eta narrazioak eman zaien lanerako oso laburrak direlako.

Koherentzia ikuspuntuari dagokionez

Oro har, maila honetako narrazioek oso argumentu ahula dute; ia-ia ez da existitzen. Esan daiteke eszena eta ekintzen segida dela, batzuk besteen atzetik gertatzen direnak, lokailu kausalik edo harreman tematikoko lokailurik gabe. Zailtasunak izanen genituzke aurkezpena, korapiloa eta amaiera identifikatzeko. Ikus ondoko adibide hau: *“Behin batean txakur batzuk zeuden abandonatu ta zeuden. Ume batzuk zeuden eta ardu zute bat eta ondo zaindu egin bear du eta tsakurra ondo bizi ziren eta tsakurra ndo bizi izan ziren ala bazan edo ez bazan sar dadila kala batzan eta atera dadila altsasuko blazan”*.

Adibide honetan antzeman daitekeenez, pertsonaiak ez dira behar bezala aurkeztu eta ez dago narrazioaren bukaeran erabakitzen den korapilorik ere. Ia-ia ez dago paragrafoetan antolatutako egiturarik. Beraz, oso koherentzia eskaseko testuak dira. Esan daiteke proposizio multzo bat dela, batzuk besteen atzetik jarriak, den-denak gai berari buruzkoak. Ikus dezagun zertxobait hobeki idatzita egon arren koherentzia arazo larriak dituen narrazio bat: *“egun batean txakur bat kolore beltza eta txuria zeukan eta izena Pepe zeukan, Eta lagunak ez zeukan eta barcelonan bizi zen eta abandonaturik zegoen jaten zuelako asko. Eta nola konpondu kadugan ez jatea asko eta bueltatzera etxera. Eta Peperen ama ilda dago. Eta Peperen aita bizirik dago. Eta bere anaia bizirik dago”*.

Kohesioa ikuspuntuari dagokionez

Testua zentzu osoko unitateetan zatikatzeari dagokionez, oso arazo larriak daude maila honetan. Idazkeraren estiloa hobetzeko, ugariak dira perpaus errazagoetan zatitu beharko lirakeen perpaus oso luzeak. Askotan narrazio osoa perpaus sorta bat da, emendiozko perpausak eta mendeko perpausen bat. Egoera horrek berarekin dakar perpausak bereizteko puntu gutxi izatea perpausetan. Perpausen artean apenas ez da komarik ageri, beharrezkoak badira ere. Maila honetan ez da galdera eta harridura markarik ageri, beharrezkoak direnean.

Barne-kohesioari dagokionez, oro har, jarioetasun eskaseko progresio tematikoa antzematen da. Hala ere, irakurleak estali beharreko jauzi eta hutsune txiki batzuk antzematen dira maiz. Denborazko adierazgailuen erabilerari dagokionez, bi egoera gertatzen dira. Batzuetan adierazgailuak sartzen dituzte, aurretik deskribatutako goragoko mailan gertatu bezala, baina beste kasu batzuetan ikasleek goragoko mailan baino denborazko adierazgailu gutxiago erabiltzen dituzte eta horrek ematen du denborazko sekuentzia homogeneoa erabiltzen dutela (gauza baten atzetik bestea gertatzen dela ematen du), eguneroko bizitzaren denborazko egiturari erreparatu gabe. Honako hau izan da idazkiaren kalitatearen bilakaeraren adierazlea. Honako hau idazkiaren kalitatearen bilakaeraren adierazgailua da.

Oro har, aditzaldiak ez dira oso egoki erabiltzen, narrazioek denboran jauziak egiten dituztelako (iraganean hasten dira, gero orainaldia erabiltzen dute, etab.) bi aditzaldiak konbinatzen dira narrazio osoan.

Zuzentasuna ikuspuntuari dagokionez

Zuzentasunari dagokionez, esan daiteke maila honetako idazkiek arazo handi samarrak dituztela. Oro har, grafiaren aurkezpena eta kalitatea gorago aztertutako mailakoak baino askoz ere okerragoak dira. Zenbaitetan (ez, hala ere, askotan) arazo grafomotorrak

antzematen dira, maiz letra ez da ongi irakurtzen eta trazaketaren kalitatea txarra da. Ortografiari dagokionez, azpimarratzekoa da idazkietan ez dela beti fonema-grafia elkarrekikotasuna eta hitzen bereizketa errespetatzen; ez da arraroa hitzak elkarturik ikustea. Horretaz gainera, maila honetako idazkietan maizenik erabilitako hitzetan ere badira akats ortografikoak. Joskera aldetik ere oker eraturako perpausak ugari dira.

Baliabideen aberastasuna ikuspuntuari dagokionez

Maila honetako narrazioak oso pobreak dira, goragoko beste maila batzuetakoekin alderaturik. Oro har, ez dute inolako baliabiderik erabiltzen narrazio interesgarriak, ongi egituratuak eta ongi idatziak egiteko (kontuan izan dezagun 2. kurtsoko ikasleez ari garela).

1- HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK

a) Testu idatzien plangintza hobetzea

Ziklo honetan zehar, ikasleek irakurtzen eta idazten ongi dakitenez, testuen plangintza sistematikoki lantzen hasi beharko lukete. Ebaluazio honetan antzemandako akatsetako asko plangintza ezaren ondorio dira. Plangintza taldean eta ahoz eginen da, jardunbide hori pixkana-pixkanaka barnera dezaten. Bakarka egin dezakete, idazketarako euskarritarako baliagarriak gertatuko zaizkien zenbait hitz paper batean anotatuz. Testuari forma ematerakoan oreka bilatu behar da, ikasleek irudimenean gainezka egitearen eta hizkuntza aldetik eman dezaketenaren artean.

Idea-jasa, diagramen edo kontzeptu-mapa errazen erabilera, forma bat baino gehiagoko eskemen erabilera... moduko teknikak oso baliagarriak izan daitezke prozesu hau ikasgelan lantzeko.

b) Narrazio testuen egitura hobetzea

Kontaketa egituraren gaineko lana bultzatu behar da. Narrazio batean tradizioz bereizi izan dira aurkezpena, korapiloa eta amaiera. Honako eskema hau ikasgelan lantzeko baliagarria izan daiteke.

Komeni da aurkezpena lantzea, oso oinarrizko mailetan bada ere: pertsonaien eta egoeren oinarrizko aurkezpena. Ziklo honetan ongien idazten duten ikasleek gainerako ikaskideek baino aurkezpen hobeak egiten dituzte. Plangintza-aldian alderdi hori landu beharko litzateke: nor da protagonista?; nolakoa da? Perpaus bat baino gehiago erabiliko beharko litzateke xede horretarako.

Ekintzaren garapenari dagokionez, ebaluazio honetan antzeman da ikasleek zailtasunak dituztela argi zehazturiko argumentuaren lerro bakarrari jarraitzeko. Horregatik, aldi hau lantzeko argi ezarri behar da zer gertatzen zaien protagonistari eta gainerako pertsonaiei eta ondorengo egoeren eta ekintzen garapena denbora-lerro sekuentzialean antolatu behar da. Ziklo honetan denbora-sekuentzia linealak eta errazak landuko dira eta ezein konplexutasun saihestuko da, ikasleek hartarako hizkuntza tresnak ongi ikasi arte.

Amaierari dagokionez, ebaluatoriko ikasleen idazki askotan ez da ongi lortu nahi zena. Horregatik, une horri arreta berezia egin behar zaio; saihestu behar da nekaduraren ondorioz ideiak bukatu direnaren sentsazioa, amaiera azkar eta zakarra eragiten duen hori. Amaiera planifikatu behar da. Kontuan izan behar bada ere ziklo honetako amaierak beti oso oinarrizkoak izanen direla, ez dute zertan uneko inprobisazioaren edo inspirazioaren araberakoak izan.

c) Aurkezpena eta ortografia hobetzea

Ziklo hau bukatzean, ezein ikaslek ez luke hurrengo ziklora igaro behar ez baditu alderdi honi dagozkion helburuak lortu. Ikasle gehiegik egiten dituzte akatsak idazkiaren aurkezpenean, garbitasunean eta antolaketan eta ziklo honetarako oinarrizko ortografian (hitzen bereizketa, letra larriak puntuaren ondoren idaztea, etab.).

Beste ikasle batzuen letra ez da behar bezala ulertzen eta haien trazaketa ez da kalitatekoa. Puntu hori landu beharko litzateke talde horrekin. Alderdi formalak izanagatik ere, ez genituzke bigarren maila batean utzi beharko testu idatziak lantzerakoan eta balioestekoan.

d) Perpausen sintaxia eta testuaren barne-kohesioa hobetzea

Ziklo honetan berbaldiaren zatikatzea landu behar da; puntu batek bereizitako perpausak egiten ikasten hasi behar dute. Ezein ikaslek ez luke bigarren ziklora igaro behar helburu hori lortu gabe. Sintaxiaren ikuspuntutik abiaturik, perpausa unitatea da. Ebaluazio honetako idazki askotan maila horretako akatsak ageri dira: testuan juntaturazko perpaus asko ageri dira eta ia-ia ez dago punturik. Horrenbestez, puntu batek bereizitako perpausetan zatikatzea landu beharko litzateke.

Perpausen egiturari dagokionez, subjektuaren eta predikatuaren arteko komunztadurari erreparatu behar zaio, bereziki luzeak eta konplexuak diren perpausetan. Ikasleek hasieran oinarrizko egiturak dituzten perpausak eginen dituzte eta, arian-arian, konplexutasun sintaktiko handiagoak egiten hasiko dira, esate baterako, mendekoak eta abar. Urrats hori ikasleekin batera landu behar da. Era berean, ikasleek pixkana-pixkanaka kontzientziatu behar dute kode idatzia ez dela ahozko kodea bezalakoa (hau da, ez dutela hitz egiten duten bezala idatzi behar).

Hori hala izanik ere, testua kalitatekoa izateko ez da aski ongi eraturako perpausak egitea. Batzuk besteekin ongi lotu behar dira, testua barnetik kohesionaturik dagoela esan ahal izateko. Alderdi horri dagokionez, azpimarratu behar da testu-adierazgailuak eta -lokailuak erabili behar direla. Maila honetan batez ere denborazko adierazgailuak landuko dira, berbaldi narratiboari jarraipena ematen diotelako. Horretaz gainera, ahalegindu beharko da testu idatziko perpausen artean hutsunerik egon ez dadin.

Halaber, beste alderdi bat ere landu behar da: narrazio osoan zehar aditzaldi egokiak erabiltzea. Narrazioaren denbora zaindu behar da (iragana, orainaldia eta geroaldia); denbora batetik bestera zuzen igaro behar da. Ziklo honetan gutxieneko helburua da narrazioak aditzaldi bakarrean egitea, batez ere iraganean. Hori hala izanik ere, helburu hori lortu duten ikasleek aurrera egin dezakete eta narrazioaren denborazkotasuneko tratamendu konplexuagoetan sartu.

e) Hiztegi aberatsaren eta askotarikoaren erabilera hobetzea

Alderdi honek bereizten ditu idazten gaitasun handiagoa duten ikasleen idazkiak eta hainbesteko maila ez dutenenak. Hiztegiaren aberastasuna loturik dago maila soziokulturalarekin eta familiako giroarekin, irakurtzeko zaletasunarekin eta ohiturarekin eta abarrekin. Hala ere, eskola ingurunearen eragina oso garrantzitsua da hiztegia aberastu nahi dugunean. Adjektibo bereizgarriak, ekintzak testuinguruan kokatzen dituzten adberbioak, errepikatutako hitzen sinonimoak eta abar bilatuz gero, alderdi hau pixkana-pixkanaka hobetuz joanen gara.

f) Testuen gainbegiraketa hobetzea

Plangintzak bezala, gainbegiraketak idazmena hobetzeko balio du. Plangintzan bezala, ahoz eta taldean has daiteke, geroago modu pertsonalagoan eta idatziz segitzeko.

Honako hau gainbegiratu daiteke:

- Testua irakurtzeko modukoa den, letra argia duen, testua garbi eta ordenatua dagoen, testuak marjinak dituen, etab.
- Testuak aurkezpena, korapiloa eta amaiera ongi bereizturik dituen eta hiru zati horiek hiru paragrafotan gutxienez antolaturik dauden (zati bakoitzeko bat).
- Koherentzia eta kohesioa bermatzen duten terminoak erabili dituen, hala nola, "hasieran", "gero", "geroago", "azkenean", etab.
- Perpaus bakoitzaren ondoren puntu bat jarri duen eta puntuaren ondoren letra larria idatzi duen.
- Testua ulertu duen eta perpaus batetik bestera igarotzeko jauzirik ez dagoen.
- Kode formalaren arabera idatzi duten edo hitz egiten duten bezala idazten duten (ahozko kodearen kutsadura).

Laburbilduz, ebaluazio honen emaitzen arabera honako hauek dira hobekuntza arloak:

Lehen zikloa
Hobekuntza arloak testu idatzien ekoizpenean

- a) Testu idatzien plangintza hobetzea
- Taldean eta ahoz, hasieran
 - Zenbait teknika erabiltzea
- b) Narrazio testuen egitura hobetzea
- Idazkian argi bereiztea aurkezpena, korapiloa eta amaiera
 - Narrazio osoan argumentuaren lerro bakar eta zehatza izatea. Lerro hori narrazio osoan mantenduko da.
 - Pertsonaiak eta nahikoa garaturik dauden egoerak aurkeztea (lau perpaus erabiliz, gutxienez).
 - Askaera progresiboak eta koherenteak, zakar bukatzea saihestuz.
- c) Aurkezpena eta ortografia hobetzea
- Aurkezpen ona, garbitasuna, marjinak, etab.
 - Irakurtzeko moduko letra, ahal bada ongi trazatua eta uniforme.
- d) Perpausen sintaxia eta testuaren barne-kohesioa hobetzea
- Testua perpaus osoetan egoki zatitzea.
 - Ongi eraturako perpausak.
 - Subjektuaren eta predikatuaren arteko komunztadura.
 - Perpaus bakunekin hasi eta perpaus elkartuetara jotzea (juntaturazkoetara eta mendekoetara).
 - Aditzaldien erabilera egokia.
 - Testu-adierazgailuak eta -lokailuak erabiltzea, gutxienik denborazkoak: “hasieran”, “gero”, “geroago”, “azkenik”, etab.
 - Progresio tematikoa, perpausen artean jauzirik egin gabe.
 - Erabilitako kodea zein den kontzientziatzea, ahozko eta lagunarteko kodeko kutsadurak saihestuz.
- e) Hiztegi aberats eta askotarikoaren erabilera hobetzea
- Izen eta aditz mota bat baino gehiago erabiltzea
 - Adjektiboak eta adberbioak erabiltzea (pixkana-pixkanaka sartzen joatea)
 - Sinonimoak erabiltzea, errepikapenak saihesteko.
- f) Testuen gainbegiraketa hobetzea
- Taldean eta ahoz, hasieran.
 - Gainbegiraketarako irizpide bat baino gehiago erabiltzea

Bigarren zikloa

1. EMAITZAK	19. orr.
2. IKASLEEN IDAZKIEN AZTERKETA KUALITATIBOA...	22. orr.
2.1. Nola idazten dute helburuak lortzen dituzten ikasleek? (III. eta IV. mailak)	22. orr.
2.2. Nola idazten dute helburuak lortzeko bidean dauden ikasleek? (II. maila)	24 orr.
2.3. Nola idazten dute helburuak lortzen ez dituzten ikasleek? (I. maila)	26. orr.
3. HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK	28. orr.

Narrazio testuen ekoizpen idatziari dagokionez, zer espero dugu ikasleek bigarren zikloaren bukaeran egitea? Zikloan landutako gaitasun batean ikasleek lortutako maila balioesterakoan, argi izan behar dugu zer espero dugun lortzea, hots, gaitasun horren garapenak eskaturiko maila zein den.

Idazmenari dagokionez, are premiazkoagoa da maila hau zein den argi eta garbi zehaztea. Curriculumetan ez da zehatz esaten ikasleek zein maila lortu beharko luketen. Ebaluazio irizpideetan zerbait aipatzen da, modu generiko eta ez oso zehatzean bada ere. Egoera horrek berarekin dakar ikastetxe bakoitzak, baita irakasle bakoitzak ere, bere aldetik eskakizun-maila ezartzea. Hori hala izanik ere, Nafarroako ikasleen kanpo-ebaluazioa egiteko, maila objektibo eta partekatu samarrak behar ditugu, ebaluazio fidagarria eta baliozkoa egin ahal izateko. Honako hauek dira irizpide horiek:

TESTU IDATZIEN EKOIZPENA

4. KURTSOA

Ikasleen idazkiak balioesteko, alderdi hauek hartuko dira kontuan: testuaren plangintza, egokitasuna, koherentzia eta kohesioa; zuzentasuna eta baliabideen aberastasuna. Bigarren zikloari egokitutako alderdi horiek honako hauetan zehaztu dira:

Etapako bigarren zikloa bukatutakoan, ikasleek gai izan beharko dute narrazio testuak idazteko, hots, landutako gaiari egokitutako luzerakoak (200en bat hitz) eta hizkuntza idatziaren berezko erregistroan idatzitakoak. Testuek zentzu orokorra eta koherentzia logikoa beharko dute izan; aurkezpena, korapiloa eta amaiera bereizi beharko dira. Testua paragrafotan antolatu beharko da. Horretaz gainera, perpausak bereizgarriak eta zentzu osokoak izanen dira. Narrazioan sartutako ekintzen sekuentzia logikodenborazkoa antzeman beharko da eta denboran ez da koherentziarik gabeko jauzirik gertatuko (iraganean, orainaldian eta geroaldian kontatutako ekintzen koherentzia mantendu beharko da). Sintaxiari dagokionez, perpausak ongi eratu beharko dira, komunztadurak eta abar errespetatuz. Azkenik, sormena eta erabilitako hiztegiaren aberastasuna kontuan hartuko dira.

1- EMAITZAK

D hizkuntza ereduko ikasleen proba idatzian bi narrazio testu jarri ziren aukeran: bata, gaztelaniaz eta bestea, euskaraz. Ondoko lerrootako emaitzak euskaraz landutako testuari dagozkio. Gaztelaniazko narrazio testuen emaitzak jakin nahi dituzten ikastetxeek edo pertsonak (G zein D hizkuntza ereduko ikasleek) gaztelaniazko idazkiei dagokien azterketa har dezakete erreferentzia puntu modura.

Egokitasuna: luzera egokia eta hizkuntza idatziaren berezko erregistroa erabiltzea

Alderdi hau balioesteko, kontuan hartuko da idazkiak luzera egokia duen eta ikasleak hizkuntza idatziaren berezko erregistroa erabiltzen duen edo, aitzitik, ahozko eta lagunarteko hizkuntzan ohikoagoak diren kodeak erabiltzen dituen.

Ikasle gehienek testuen helburuei egokitutako luzera duten testuak idazten dituzte. Erabilitako erregistro motari dagokionez, emaitzak honako hauek dira: lagineko ikasleen idazkien %52an hizkuntza idatziaren berezko erregistroa erabiltzen da. Ikasleen %26k ahozko eta lagunarteko erregistroetan ohikoak diren esapideak erabiltzen dituzte. Ikasleen %22k ahozko eta lagunarteko hizkuntzaren kodeak idatziz erabiltzen dituzte.

Koherentzia: zentzu orokorra

Alderdi hau balioesteko, kontuan hartuko da, testuaren zentzuari dagokionez, argia edo, aitzitik, nahasgarria den.

Idazkien %49an argi antzematen da zein den testuaren zentzu orokorra (pertsonea eta egoeren aurkezpen argia; korapiloa eta amaiera koherentea). Idazkien %35ean antzematen da zentzu orokorra, baina izan badira testuaren ulermen orokorra zertxobait oztopatzen duten alderdi nahasgarri batzuk. Idazkien %16 modu nahasgarrian eta ez oso argian idatzita daude.

Testu idatziaren barne-kohesioa

Alderdi hau balioesteko, kontuan hartuko da testua perpauz bereizgarri eta zentzu osokoetan antolatu den, ekintzen sekuentzia logiko-denborazkorik dagoen (jauzirik eza, adierazgailu eta lokailuen erabilera, etab.) eta, azkenik, aditzaldiak oker erabiltzearen ondoriozko denbora-jauzirik dagoen.

Idazkien %47 aipatutako irizpide horiei jarraikiz idatzita daude (irizpide horiek testuari barne-kohesioa ematen diote). Idazkien %31n barne-kohesioko akatsen bat dago (jauziak kontakizunean, jauziak denboran, etab.). Idazkien %22an testuari barne-kohesioa ematen dioten osagaietan akatsak ugari dira.

Idazkiaren zuzentasuna

Alderdi hau balioesteko, funtsean testuaren irakurgarritasunari erreparatuko zaio. Ortografiari dagokionez, fonemen eta grafien arteko elkarrekikotasunari eta hitzen bereizketari erreparatuko zaio eta sintaxiari dagokionez, orobat, perpausak zuzen eraturik dauden edo ez (subjektuaren eta predikatuaren arteko komuntadura...).

Ikasleen idazkien %43 idatzita daude ziklo hau bukatzean eska daitekeen zuzentasun-mailaren arabera. Hots: hitzen bereizketa, fonemen eta grafien arteko elkarrekikotasuna eta sintaktikoki zuzenak diren perpausak. Idazkien %32an akatsak daude alderdi horietan eta %25, berriz, oso gaizki daude idatzita.

Erabilitako baliabideen aberastasuna

Alderdi hau balioesteko, kontuan hartuko dira lehen zikloa bukatzean erabilitako hiztegiaren aberastasuna, kontakizunaren irudimena eta esan nahi zen hura adierazteko hizkuntza erabiltzen jakitea.


Ikasleen %33k beren idazkietan baliabide horiek erabiltzen dituzte, egoki eta zikloan espero daitekeenaren arabera. Ikasleen %42k parte batean erabiltzen dituzte (hiztegia egokia da, baina mugatua; istorioak idazten dituzte, interes handirik gabeak eta bere ideiak adierazteko helburuarekin hizkuntza erabiltzeko erraztasunik gabeak). Ikasleen %25en testuetan hiztegi urria da eta kontatutako istorioa adierazteko hizkuntza erabili behar dutenean zailtasun larriak dituzte.

Balioespen orokorra

Idazkiaren balioespen orokorra egiteko, kontuan hartu dira gorago aurkeztutako alderdi guztiak, hau da, egokitasuna, koherentzia eta barne-kohesioa, zuzentasuna eta baliabideen aberastasuna. Horretaz gainera, testuaren plangintza ere hartu da kontuan.

Ikasleen %48k ziklo honetarako ezarritako mailak argi eta garbi gaintitzen dituen kontakizun bat idatzi dute. Ikasleen %25ek doi-doi lortu dute maila edo lortzeko bidean daude eta ikasleen %27k ez ditu inolaz ere gaintitu idazmenean ziklo honetarako ezarritako mailak.

Testu ekoizpenaren ebaluazioa
Bigarren zikloa - Euskara
"Piraten abentura"



■ 1. Ez dituzte helburuak lortu □ 2. Lortzeko bidean daude □ 3 eta 4. Helburuak lortu dituzte

IKASLEEN IDAZKIEN AZTERKETA KUALITATIBOA

D hizkuntza ereduko ikasleen proba idatzian bi narrazio testu jarri ziren aukeran: bata, gaztelaniaz eta bestea, euskaraz. Ondoko lerrootako emaitzak euskaraz landutako testuari dagozkio. Gaztelaniazko narrazio testuen emaitzak jakin nahi dituzten ikastetxeek edo pertsonak (G zein D hizkuntza ereduko ikasleek), gaztelaniazko idazkiei dagokien azterketa har dezakete erreferentzia puntu modura.

Lehen Hezkuntzako lehen zikloan bezala, bigarren ziklo honetan ere ezberdintasun handiak antzematen dira zuzentasun gramatikalean eta baliabideen aberastasunean, ikasleen jakintza- eta erabilera-maila ere askotarikoa delako. Bigarren zikloa bukatutakoan, euskara ama hizkuntza duten ikasleek edota euren inguruan euskara ohikotasunez erabiltzen dutenek akats gutxi egingen dituzte oinarrizko aditz-formen erabileran eta deklinabide-kasuen erabilera zuzenean, hiztegi aberatsagoa erabiliko dute eta, sintaxiari dagokionez, egitura konplexuagoak eta aberatsagoak erabiliko dituzte.

Aitzitik, bigarren zikloa bukatutakoan euskara ohikotasunez erabiltzen ez den ingurunean bizi diren ikasleek errakuntza gramatikal esanguratsuak egiten segituko dute eta haien hiztegia ez da hain aberatsa izanen. Hori hala izanik ere, denetarik dago, ikasle askok zuzentasun eta aberastasun handiko testuak sortzen baitituzte.

2.1- Nola idazten dute helburuak lortzen dituzten ikasleek?

Egokitasuna ikuspuntuari dagokionez

Oro har, helburuak lortzen dituzten ikasleen testuak luzeagoak dira beheagoko beste maila batzuetakoak baino; informazio gehiago eta ñabardurez beteagoa dute (batez beste 250 hitz inguruak dira). Hizkuntza idatziaren berezko kodea erabiltzen dute, betiere ziklo honetako eskakizunen arabera. Ez da lagunarteko esapiderik, ezta ahozko hizkuntzan ohikoak diren egiturak ere.

Koherentzia ikuspuntuari dagokionez

Kontakizunak errazak dira (ziklo bukaeran halakoak idaztea espero da) eta narrazio testuen berezko barne-egitura dute. Beheagoko mailetan ez bezala, narrazioei zenbait perpausekin ematen zaie hasiera, irakurlea kokatzeko eta pertsonaiak nor eta nolakoak diren deskribatzeko. Adibidez, protagonista nola deitzen den, nolakoa den edo non bizi den agertzen da. Hasierako lau perpaus gutxienez horretarako erabiltzen dira, "korapiloa" garatzen hasi aurretik. Ikus ondoko adibide hau: *"Duela urte asko bazen Martin deitzen zen pirata bat. Ez zen oso garaia, ezpata beti nabarmena zeukan eta espageti bat bezain argala zen. Itsasoa bezalako begi urdinak zituen"*.

Horren ondotik, behin irakurlea kokaturik dagoela, maila honetako ikasleak ekintzak deskribatzen hasten dira: oro har, 2. kurtsoan gertatzen ez zen bezala, argumentuaren lerro bakarrera mugatzen dira. Argumentuaren lerroarekin bat egiten duten ekintzak deskribatzearekin batera, tramari ez dagozkion ekintza garrantzirik gabeak tartekatzen

dira eta horrek irakurlearen arreta desbideratzen du. Horrenbestez, narrazioetan argumentuaren haria galkorra da, aurkezpena egoki samarra da, ekintzez osatutako garapena dute (ekintza batzuk egokiak eta beste batzuk garrantzigeak dira). Amaiera berehala ematen zaio kontakizunari, zakar samar bada ere.

Paragrafoetan antolatutako egitura ageri da idazkietan. Hiruzpalau paragrafo egiten dituzte (paragrafo bat berdin ideia bat). Paragrafo horietan narrazioaren zenbait denbora-une ageri da. Ikus paragrafo-hasiera batzuk, irizpide hori adibidez hornitzeko: "Egun batean", "Gau hartan", "Bi egun galduta egon ondoren", "Azkenean",

Kohesioa ikuspuntuari dagokionez

Eskuarki, maila honetako testuak zentzu osoko unitateetan zatiturik daude. Perpausak puntuen bitartez bereizten dira. Oro har, komak erabiltzen dira perpausen barnean. Maila honetan ageri dira galdera eta harridura markak, beharrezkoak direnean.

Barne-kohesioari dagokinez, esan daiteke, oro har, perpaus batetik bestera igarotzerakoan progresio tematikoa dagoela. Ez da ez jauzi, ez hutsune semantikorik antzeman. Narrazioaren egitura kronologikoa errazten duen denborazko adierazgailuren bat erabili ohi dute: 2. kurtsoan erabilitakoez gainera ("behin batean", "egun batean", "orduan", "ondoren", "bat-batean", *etab.*) eduki semantiko handiagoa duten beste adierazgailu batzuk ere erabiltzen dituzte ("Aspaldi-aspaldi", "Egun batzuk pasata", "Joan zirenean" "handik aurrera"). Horietaz gainera, beste baliabide batzuk erabiltzen dituzte testuari kohesio emateko. Bereziki, perpaus perpaus eta arian-arian, aberasten joaten den eduki tematiko bera mantentzea; ondoko adibidean ikusten da nola erabili den baliabide hau testuari koherentzia eta kohesioa emateko:

"Duela hogeit hamar urte, pirata bat bizi zen, Jack deitzen zena. Jack bizarduna zen, ile luzekoa, trebea eta altua. Egun batean, bere lau lagunak, John, Brad, Tom, Keira eta Jack uhartera batera iritsi ziren altxorra aurkitzeko, eta bere uhartera eramateko, denei emateko. Bostak hasi ziren zuloak egiten, altxorra aurkitzeko, baina alferrik."

Aurreko adibidean ikus daitekeenez, ikasleak zenbait baliabide erabili du testu kohesionatua lortzeko. Puntuazioari dagokionez, testua nahiko ongi antolaturik dago. Erreferenteak (*bere, bostak...*) eta denborazko adierazgailu egokiak (*Duela hogeit hamar urte, Egun batean...*) erabili ditu. Narrazioaren testuinguruan, ekintza guztiek barne-logika dute.

Oro har, aditzaldiak egoki erabili dira, narrazioak iraganean idatzi direlako eta narrazioan zehar aditzaldi hori erabili delako beti. Horretaz gainera, narrazioak hala eskatzen zuenean, orainaldia zuzen erabili da zenbait idazkitan. Adibidez:

Lehenengo soto guztitik bilatu zuen eta ezer. Gero barkuko terrazan bilatu zuen. Leku guztietatik bilatu zuen baino ezer. Orduan ohiukatu zuen: -NON DAGO NIRE LORITOA!!!!!!!!!! - Ozeano guztitik entzun zen eta arrain guztiak izkutatatu egin ziren.

Zuzentasuna ikuspuntuari dagokionez

Zuzentasunari dagokionez, esan daiteke maila honetako idazkiak egoki aurkeztu direla, ez dela arazo grafomotorrik antzeman, irakurtzeko moduko letrarekin idatzi direla eta trazaketaren kalitatea onargarria dela. Ortografiari dagokionez, azpimarratzekoa da idazkietan fonema-grafia elkarrekikotasuna eta hitzen bereizketa errespetatu direla. Nolanahi ere, "tz"/"ts" eta "z/s" kasuetan zenbait zailtasun gertatu da. Horretaz gainera, maizenik erabilitako hitzen ortografia naturala egoki erabili da. Erakusleetan "h" zuzen erabili da.

Ziklo honetako oinarritzko arau ortografikoei dagokienez, puntuaren ondoren letra larriak erabiltzen dituzte, baita izen berezietan ere. Perpausak ongi eratu dira. Perpaus bakunekin batera, ongi eraturako mendeko perpaus batzuk ere idatzi dira, hala nola: *"Marķel eta bere lagunaķ itsaontzian segitzen zuten itsaoan barrena. Oraindik hian izango dira itsasontzi nabar baten gainean itsasoa zehar bidaiatzen"*.

Baliabideen aberastasuna ikuspuntuari dagokionez

Maila honetako narrazioak beheragoko beste maila batzuetakoak baino irudimentsuagoak eta landuagoak dira. Testuetako hiztegia askotarikoa eta ziklo honetan ohikoa dena da. Gorago esan den bezala, syntaxiko eta hiztegiko baliabideak erabili dituzte narrazioari askotarikotasuna eta aberastasuna emateko. 2. kurtsoko testuekin alderaturik, aurrerapena oso da esanguratsua.

2.2- Nola idazten dute helburuak lortzeko bidean dauden ikasleek?

Egokitasuna ikuspuntuari dagokionez

Oro har, testuak goragoko mailakoak baino zertxobait laburragoak izaten dira. Beraz, goragoko mailetan baino informazio gutxiago dute eta hura ez dago hain zehaztua (narrazioan batez beste 150 hitz inguru erabili dute, nahiz eta batzuen eta besteen artean ezberdintasunak izan; nolanahi ere, 130 hitzetatik 300 hitz bitartean erabiltzen dituzte). Eskuarki, hizkuntza idatziaren berezko kodea erabiltzen dute (ziklo honetan eskatutakoa kontuan hartu behar da). Askotan, ikasleek ez dute behar bezala idazten eta euren lanetan ahozko kodearen eragina antzematen da. Esate baterako: *"Bazen bein bi pirata eta nesķa bat bi mutilaķ aundiaķ ziren eta nesķa erebai iruaķ borroķa ondo egiten zuten, eta itsasontzi bat erosi zuten. Itsasontziareķin itsasora joan ziren eta an patsadan egon ziren, bi itsasontziķusi arte, asierreķ iķusi zituen"*. Adibide honetan ikus daitekeen bezala, ikasleak ez daki behar bezala idazten, hau da, hitz egiten duen bezala idazten du. II. mailaren eta I. mailaren artean legokeen testu baten adibidea litzateke hau.

Koherentzia ikuspuntuari dagokionez

Narrazioak xumeak dira (halakoak izatea espero da zikloaren bukaeran). Narrazio testuen berezko barne-egitura dute eta goragoko mailan deskribatutakoak baino xumeagoak dira, ez hain konplexuak. Maila honetan bi egoera gertatzen dira. Zenbait narrazioren hasieran perpaus batzuk ageri dira, irakurlea egoeran kokatzeko eta

pertsonaiak zein diren eta nolakoak diren esateko. Horretarako bizpalau esaldi erabiltzen dituzte, "korapiloa" garatzen hasi aurretik. Goiko mailako testuekin alderaturik, maila honetan perpaus gutxiago erabili ohi dira eta, horrenbestez, aurkezpenak pobreagoak eta eskematikoagoak izan ohi dira. Ikus ondoko adibide hau: *"Egun batean Jak izeneko eldu bat bere lagunekin itsasontzi batean bizi ziren, beste piratek zeukaten altxorra nahi zuten. Orduan urrengo egunean beraien bila joan ziren"*; hiru piratari gertatutako gorabeherekin eta abenturekin segitzen du hemen narrazioak.

Horren ondotik, behin irakurlea kokaturik dagoela, maila honetako ikasleak ekintzak deskribatzen hasten dira: oro har, 2. kurtsoan gertatzen ez den bezala, argumentuaren lerro bakarrera mugatzen dira. Argumentuaren lerroarekin bat egiten duten ekintzak deskribatzearekin batera, tramari ez dagozkion ekintza garrantzirik gabeak tartekatzen dira eta horrek irakurlearen arreta desbideratzen du. Narrazioetan argumentuaren haria galkorra da, aurkezpena egoki samarra da, ekintzez osatutako garapena dute (ekintza batzuk egokiak eta beste batzuk garrantzizgabeak dira). Amaiera berehala ematen zaio kontakizunari, zakar samar bada ere.

Esan daiteke testua ez dela ia-ia paragrafoetan antolatu. Idazkia paragrafoetan antolatzen denean, hauxe da egitura: paragrafo bat berdin ideia bat (goragoko mailan gertatzen ez zen bezala).

"Kohesioa" ikuspuntuari dagokionez

Eskuarki, maila honetako testuak zentzu osoko unitateetan zatiturik daude. Perpausak puntuen bitartez bereizten dira. Oro har, ez da komarik erabiltzen perpausen barnean. Maila honetan ez dira ageri galdera eta harridura markak, ez behinik behin goragoko mailetako testuetan bezainbeste.

Barne-kohesioari dagokionez, esan daiteke maila honetako testu askotan arazotxoren bat antzeman daitekeela progresio tematikoan, perpaus batetik bestera igarotzean, argumentuaren aurrerapenean jaritasun gutxi antzematen bada ere. Hala ere, irakurleak zenbaitetan estali beharreko jauzi eta hutsune txiki batzuk antzematen dira. Denborazko adierazgailuak erabiltzen dituzte eta adierazgailu horiek narrazioaren egitura kronologikoa errazten dute, goragoko mailetan lortutako aberastasun semantikorik eta haietan aurkitutako aniztasunik lortzen ez badute ere.

Oro har, aditzaldiak egoki erabili dira, narrazioak iraganean idatzi direlako eta narrazioan zehar aditzaldi hori erabili delako beti.

Zuzentasuna ikuspuntuari dagokionez

Zuzentasunari dagokionez, esan daiteke maila honetako idazkiak modu batean baino gehiagotan aurkeztu direla, ez dela arazo grafomotorrik antzeman (salbuespen gutxi batzuk izan ezik), irakurtzeko moduko letrarekin idatzi direla eta trazaketaren kalitatea onargarria dela. Ortografiari dagokionez, azpimarratzekoa da idazkietan fonema-grafia elkarrekikotasuna eta hitzen bereizketa errespetatu direla. Nolanahi ere, "tz"/"ts" eta "z/s" kasuetan zenbait zailtasun gertatu da. Horretaz gainera, maizenik erabilitako hitzen ortografia naturala erabili da. Hori hala izanik ere, maila honetako idazkietan egunero

erabiltzen diren hitzetan akats ortografiko gehiago egin da goragoko mailako idazkietan baino, ikasleen maila orokortzerik ez bada ere.

Ziklo honetako oinarrizko arau ortografikoei dagokienez, puntuaren ondoren letra larriak erabili dituzte, baita izen berezietan ere. Zailtasunak dituzte "h"arekin idazten diren hitzetan, egunero erabiltzen diren zenbait aditz-formarekin, ergatiboarekin eta deklinabideko beste kasu batzuekin. Sintaxian ere zailtasunak dituzte (perpausaren barneko hitzen hurrenkera aldatzen dute batzuetan).

Baliabideen aberastasuna ikuspuntuari dagokionez

Maila honetako narrazioak goragoko mailakoak baino irudimentsuagoak eta landuagoak dira. Testuetako hiztegia ez da ez askotarikoa, ez ziklo honetan ohikoa dena. Oro har, narrazio interesgarriak, ongi egituratuak eta ongi idatziak egiteko baliabide gutxi erabiltzen dute (kontuan izan behar dugu beti 4. kurtsoko ikasleak direla). Ikasleek gaztelaniazko hitzak erabiltzen dituzte.

2.3- Nola idazten dute helburuak lortzen ez dituzten ikasleek?

Egokitasuna irizpideari dagokionez

Oro har, testuak tarteko mailakoak baino askoz ere laburragoak izaten dira. Beraz, goragoko mailetan baino askoz ere informazio gutxiago dute eta hura ez da hain zehaztua (narrazioan 100 hitz inguru erabiltzen dituzte, idazki batzuetatik besteetara aldeak badaude ere). Eskuarki, ikasleek arazoak dituzte kode idatzia erabiltzeko eta euren lanetan ahozko kodearen eragina antzematen da. Esate baterako: *“Bazen bein jak̄ esparrou izenek̄o pirata bat bein erri batera joan zen laguntzaiile bila eta esk̄atu zuen etxez etxe eta uste zuenean inor etorri nai lau lagun etorri ziren auek̄ ziren: wiliam tarner Aingeru, aimar olaizola eta printzesa bat eta bark̄oa artu eta eta perla beltzaren bila joan ziren gerra ask̄o izan zuten lana egun batean barbasa agertu eta denak̄ borrok̄an asi ziren eta azk̄enean perla beltzaren madarik̄azioa apurtu zen eta jak̄ esparrou eta printzesa ezk̄ondu egin ziren. eta esan zuten. –azk̄enean madarik̄azioa apurtu da-;!!”* Adibide honetan ikus daitekeen bezala, ikasleak ez daki behar bezala idazten, hau da, hitz egiten duen bezala idazten du. Beraz, testuinguruari gutxi egokitzen zaizkion testuak dira, ez baitute kode formalik erabiltzen eta narrazioak eman zaien lanerako oso laburrak direlako.

Koherentzia ikuspuntuari dagokionez

Oro har, maila honetako narrazioek oso argumentu ahula dute; ia-ia ez da existitzen. Esan daiteke ekintza eta eszenen segida dela, batzuk besteen atzetik gertatzen direnak, lokailu kausalik edo harreman tematikoko lokailurik gabe. Zailtasunak izanen genituzke aurkezpena, korapiloa eta amaiera identifikatzeko.

Ia-ia ez dago paragrafoetan antolatutako egiturarik. Beraz, oso koherentzia eskaseko testuak dira. Esan daiteke proposizio multzo bat dela, batzuk besteen atzetik jarriak, den-denak gai berari buruzkoak.

Kohesioa ikuspuntuari dagokionez

Testua zentzu osoko unitateetan zatikatzeari dagokionez, oso arazo larriak daude maila honetan. Idazkeraren estiloa hobetzeari begira, ugari dira perpaus errazagoetan zatituk beharko lirakekeen perpaus oso luzeak. Askotan narrazio osoa perpaus sorta bat da, emendiozko perpausak eta mendeko perpausen bat. Egoera horrek berarekin dakar perpausak bereizteko puntu gutxi izatea perpausetan. Perpausen artean apenas ez da komarik ageri, beharrezkoak badira ere. Maila honetan ez da galdera eta harridura markarik ageri, beharrezkoak direnean.

Barne-kohesioari dagokionez, oro har, jarioetasun eskaseko progresio tematikoa antzematen da. Hala ere, irakurleak estali beharreko jauzi eta hutsune txiki batzuk antzematen dira maiz. Denborazko adierazgailuen erabilerari dagokionez, bi egoera gertatzen dira. Batzuetan adierazgailuak sartzen dituzte, aurretik deskribatutako tarteko mailan gertatu bezala, baina beste kasu batzuetan ikasleek goragoko mailan baino denborazko adierazgailu gutxiago erabiltzen dituzte eta horrek ematen du denborazko sekuentzia homogeneoa erabiltzen dutela (gauza baten atzetik bestea gertatzen dela ematen du), eguneroko bizitzaren denborazko egiturari erreparatu gabe. Honako hau izan da idazkiaren kalitatearen bilakaeraren adierazlea.

Oro har, aditzaldiak ez dira oso egoki erabili, narrazioek denboran jauziak egin dituztelako (iraganean hasten dira, gero orainaldia erabiltzen dute, etab.).

Zuzentasuna ikuspuntuari dagokionez

Zuzentasunari dagokionez, esan daiteke maila honetako idazkiek arazo handi samarrak dituztela. Oro har, grafiaren aurkezpena eta kalitatea gorago aztertutako mailetakoak baino askoz ere okerragoak dira. Zenbaitetan (ez, hala ere, askotan) arazo grafomotorrak antzematen dira, maiz letra ez da ongi irakurtzen eta trazaketaren kalitatea txarra da. Ortografiari dagokionez, azpimarratzekoa da idazkietan fonema-grafia elkarrekikotasunean oraindik akats puntualen bat egiten dela (bereziki, "ts/tz" eta "s/z" kasuetan), baina ez da ohikoa. Horretaz gainera, maila honetako idazkietan maizenik erabilitako hitzetan akats ortografikoak ugari dira; "h"aren erabileraren akats asko egiten dira, baita erakusleetan ere. Joskera aldetik oker eraturako perpausak ugari dira eta perpausaren barnean hitzen ordena maiz aldatzen da.

Baliabideen aberastasuna ikuspuntuari dagokionez

Maila honetako narrazioak oso pobreak dira, goragoko beste maila batzuetakoekin alderaturik. Oro har, ez dute inolako baliabiderik erabiltzen narrazio interesgarriak, ongi egituratuak eta ongi idatziak egiteko (kontuan izan dezagun 4. kurtsoko ikasleez ari garela). Gaztelaniazko hitzak ere maiz erabiltzen dituzte.

2. HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK

a) Testu idatzien plangintza hobetzea

Ebaluazio honetan antzemandako akatsetako asko plangintza ezaren ondorio dira. Beraz, komeni da bigarren zikloan alderdi honi eragitea, ikasleei idazten irakastea garrantzitsua baita. Plangintza taldean eta ahoz egiten hasiko da, jardunbide hori pixkana-pixkanaka barnera dezaten. Gero, bakarka egin dezakete, idazketarako euskarritarako baliagarriak gertatuko zaizkien zenbait hitz paper batean anotatuz. Testuari forma ematerakoan oreka bilatu behar da, ikasleek irudimenean gainezka egitearen eta hizkuntza aldetik eman dezaketenaren artean.

Idea-jasa, diagramen edo kontzeptu-mapa errazen erabilera, forma bat baino gehiagoko eskemen erabilera... moduko teknikak oso baliagarriak izan daitezke prozesu hau ikasgelan lantzeko.

b) Narrazio testuen egitura hobetzea

Kontaketa egituraren gaineko lana bultzatu behar da. Narrazio batean tradizioz bereizi izan dira aurkezpena, korapiloa eta amaiera. Honako eskema hau ikasgelan lantzeko baliagarria izan daiteke.

Komeni da aurkezpena lantzea: pertsonaien eta egoeren aurkezpena, ikuspuntu fisikotik zein psikologikotik. Ziklo honetan ongien idazten duten ikasleek gainerako ikaskideek baino aurkezpen hobeak egiten dituzte. Plangintza-aldian alderdi hori landu beharko litzateke. Ikasleek hiruzpalau perpaus erabiliko dituzte xede horretarako.

Ekintzaren garapenari dagokionez, ikasleek argumentuaren lerro bakar eta argi zehaztuari jarraitu behar diote. Era berean, argumentuaren lerroarekin zuzenean loturik ez dauden eta, tramaren arabera garrantzitsua denetik, irakurlearen arreta desbideratzen duten ekintzak eta egoerak ez sartzen ahaleginduko dira. Hala, argumentu sendoago eta koherenteagoak lortuko dira.

Argumentuaren lerroaren koherentzia landuko da zailtasun handiagoak dituzten ikasleekin; azpimarratu beharko zaie lokailu gutxiago erabili behar dutela (kausazkoak, tematikoak, etab.) eta perpausak lotura tematikorik eta logika sendorik gabe lotzea saihestu behar dutela.

Era berean, azpimarratu behar da aurkezpen argia, garapen aski esplizitua eta garapenarekin koherentea eta harekin bat datorren amaiera egin behar dutela. Horregatik, alderdi hau landu behar da eta argi ezarri zer gertatzen zaion protagonistari eta gainerako pertsonaiei eta ondorengo egoerak eta ekintzak denboraren lerro sekuentzian antolatu behar dira.

Zailtasun gehiago dituzten ikasleekin, ziklo honetan denbora-sekuentzia linealak eta errazak landuko dira eta ezein konplexutasun saihestuko da, ikasleek hartarako hizkuntza tresnak ongi ikasi arte. Zailtasunik ez duten ikasleekin trama landuxeagoak erabil daitezke.

Amaierari dagokionez, ebaluatoriko ikasleen idazki batzuetan ez da ongi lortu nahi zena. Horregatik, une horri arreta berezia egin behar zaio; saihestu behar da nekaduraren ondorioz ideiak bukatu direnaren sentsazioa, amaiera azkar eta zakarra eragiten duen hori. Amaiera planifikatu behar da. Kontuan izan behar bada ere ziklo honetako amaierak beti oinarrizkoak izanzen direla, ez dute zertan uneko inprobisazioaren edo inspirazioaren araberakoak izan.

Testuaren antolaketa formalari dagokionez, ziklo honetan ikasleek testua paragrafoka antolatzen landu behar dute. Erreferentzia modura eta modu oso orientagarrian, ondoko irizpide hau har daiteke kontuan: paragrafo bat aurkezpenarako, bi paragrafo korapiloaren garapenerako eta paragrafo bat amaierarako.

c) Aurkezpena eta ortografia hobetzea

Ziklo hau bukatzean, ezein ikaslek ez luke hurrengo ziklora igaro behar ez baditu alderdi honi dagozkion helburuak lortu. Ikasle askok egiten dituzte akatsak idazkiaren aurkezpenean, garbitasunean eta antolaketan eta ziklo honetarako oinarrizko ortografian.

Ikasle batzuen (ez askoren) letra ez da behar bezala ulertzen eta haien trazaketa ez da kalitatekoa. Puntu hori landu beharko litzateke talde horrekin. Alderdi formalak izanagatik ere, ez genituzke bigarren maila batean utzi beharko testu idatziak lantzerakoan eta balioestekoan.

d) Perpausen sintaxia eta testuaren barne-kohesioa hobetzea

Ziklo honetan lantzen segitu behar den alderdietako bat hauxe da: berbaldia puntu batek bereizitako perpausetan zatikatzea. Oraindik badira ikasleak idazketan hain oinarrizkoa den alderdi hori ongi egiten ez dutenak. Ezein ikaslek ez luke hirugarren ziklora igaro behar helburu hori lortu gabe. Sintaxiaren ikuspuntutik abiaturik, perpausa unitatea da. Ebaluazio honetako idazki askotan maila horretako akatsak ageri dira: testuan juntaturazko perpaus asko ageri dira eta ia-ia ez dago punturik.

Horrenbestez, alderdi horretan zailtasunak dituzten ikasleekin landu beharko litzateke zatiketa, hots, puntu batek bereizitako perpausak egiten ikastea.

Puntuazioaz gainera, bigarren zikloan komen erabilerari ere erreparatu behar zaio. Alderdi hori loturik dago perpausen luzerarekin eta konplexutasunarekin. Ziklo honetan ikasleei eskatu behar zaie lehen zikloan egiten zituzten perpausak baino luzeagoak eta konplexuagoak egitea. Ziklo honetan komak egoki erabiltzea ez da oinarrizko helburua. Hala ere, alderdi hori lantzen joan beharko litzateke.

Perpausen egiturari dagokionez, subjektuaren eta predikatuaren arteko komunztadura bereziki landu behar da, bereziki luzeak eta konplexuak diren perpausetan. Ikasleek hasieran oinarrizko egiturak dituzten perpausak eginen dituzte eta, arian-arian, konplexutasun sintaktiko handiagoak egiten hasiko dira, esate baterako, mendekoak eta abar. Urrats hori ikasleekin esplizituki landu behar da. Era berean, ikasleek pixkana-pixkanaka kontzientziatu behar dute kode idatzia ez dela ahozko kodea bezalakoa (hau da, ez dutela hitz egiten duten bezala idatzi behar).

Hori hala izanik ere, testua kalitatekoa izateko ez da aski ongi eraturako perpausak egitea. Batzuk besteekin ongi lotu behar dira, testua barnetik kohesionaturik dagoela esan ahal izateko. Alderdi horri dagokionez, azpimarratu behar da testu-adierazgailuak eta -lokailuak erabili behar direla. Maila honetan batez ere denborazko adierazgailuak landuko dira, berbaldi narratiboari jarraipena ematen diotelako. Horretaz gainera, ahalegindu beharko da testu idatziko perpausen artean hutsunerik egon ez dadin.

Halaber, beste alderdi bat ere landu behar da: narrazio osoan zehar aditzaldi egokiak erabiltzea. Narrazioaren denbora zaindu behar da (iragana, orainaldia eta geroaldia); denbora batetik bestera zuzen igaro behar da. Ziklo honetan gutxieneko helburua da narrazioak aditzaldi bakarrean egitea, batez ere iraganean. Hori hala izanik ere, helburu hori lortu duten ikasleek aurrera egin dezakete eta narrazioaren denborazkotasuneko tratamendu konplexuagoetan sartu.

e) Hiztegi aberatsaren eta askotarikoaren erabilera hobetzea

Alderdi honek bereizten ditu idazten gaitasun handiagoa duten ikasleen idazkiak eta hainbesteko maila ez dutenenak. Hiztegiaren aberastasuna loturik dago maila soziokulturalarekin eta familiako giroarekin, irakurtzeko zaletasunarekin eta ohiturarekin eta abarrekin. Hala ere, eskola ingurunearen eragina oso garrantzitsua da hiztegia aberastu nahi dugunean. Adjektibo bereizgarriak, ekintzak testuinguruan kokatzen dituzten adberbioak, errepikatutako hitzen sinonimoak eta abar bilatuz gero, alderdi hau pixkana-pixkanaka hobetuz joanen gara.

f) Testuen gainbegiraketa hobetzea

Plangintzak bezala, gainbegiraketak idazmena hobetzeko balio du. Plangintzan bezala, ahoz eta taldean has daiteke, geroago modu pertsonalagoan eta idatziz segitzeko.

Honako hau gainbegiratu daiteke:

- Testua irakurtzeko modukoa den, letra argia duen, testua garbi eta ordenatua dagoen, testuak marjinak dituen, etab.
- Testuak aurkezpena, korapiloa eta amaiera ongi bereizturik dituen eta hiru zati horiek hiru paragrafotan gutxienez antolaturik dauden (zati bakoitzeko bat).
- Koherentzia eta kohesioa bermatzen duten terminoak erabili dituen, hala nola, "hasieran", "gero", "geroago", "azkenean", etab.
- Perpaus bakoitzaren ondoren puntu bat jarri duen, puntuaren ondoren letra larria idatzi duen, harridura eta galdera markak idatzi dituen, elkarrizketetan marra luzea idatzi duen eta, oro har, ortografia akatsik egin duen.
- Testua ulertu duen eta perpaus batetik bestera igarotzeko jauzirik ez dagoen.
- Kode formalaren arabera idatzi duten edo hitz egiten duten bezala idazten duten (ahozko kodearen kutsadura).

Laburbilduz, ebaluazio honen emaitzen arabera honako hauek dira hobekuntza arloak:

Bigarren zikloa
Hobekuntza arloak testu idatzien ekoizpenean

- a) Testu idatzien plangintza hobetzea
- Hasieran, taldean eta ahoz, eta, bukaeran, eskema pertsonalak egitea
 - Ideiak biltzeko eta antolatzeko zenbait teknika erabiltzea
- b) Narrazio testuen egitura hobetzea
- Idazkian argi bereiztea aurkezpena, korapiloa eta amaiera
 - Narrazio osoan argumentuaren lerro bakar eta zehatza izatea. Lerro hori narrazio osoan mantenduko da. Narrazioen ekonomia bilatzea (garrantzirik gabeko ekintzak eta egoerak ez sartzeko ahalegina egitea)
 - Pertsonaiak eta nahikoa garaturik dauden egoerak aurkeztea (lau perpauk erabiliz, gutxienez).
 - Askaera progresiboak eta koherenteak, zakar bukatzea saihestuz: argumentuaren garapenarekiko koherentzia bilatzea.
 - Idazkia paragrafo koherentetan antolatzea.
- c) Aurkezpena eta ortografia hobetzea
- Aurkezpen ona, garbitasuna, marjinak, etab.
 - Irakurtzeko moduko letra, ahal bada ongi trazatua eta uniforme.
- d) Perpausen sintaxia eta testuaren barne-kohesioa hobetzea
- Testua perpauk osoetan egoki zatitzea.
 - Ongi eraturako perpauk.
 - Subjektuaren eta predikatuaren arteko komunztadura.
 - Perpauk bakunekin hasi eta perpauk elkartuetara jotzea (juntaturazkoetara eta mendekoetara).
 - Aditzaldien erabilera egokia.
 - Testu-adierazgailuak eta -lokuak erabiltzea, gutxienez denborazkoak: “hasieran”, “gero”, “geroago”, “azkenik”, etab.
 - Progresio tematikoa, perpausen artean jauzirik egin gabe.
 - Erabilitako kodea zein den kontzientziatzea, ahozko eta lagunarteko kodeko kutsadurak saihestuz.
- e) Hiztegi aberats eta askotarikoaren erabilera hobetzea
- Izen eta aditz mota bat baino gehiago erabiltzea
 - Adjektiboak eta adberbioak erabiltzea (pixkana-pixkanaka sartzen joatea)
 - Sinonimoak erabiltzea, errepikapenak saihesteko.
- f) Testuen gainbegiraketa hobetzea
- Hasieran, taldean eta ahoz, eta bukaeran, bakarka.
 - Gainbegiraketarako irizpide bat baino gehiago erabiltzea

Hirugarren zikloa

1. EMAITZAK	34. orr.
2. IKASLEEN IDAZKIEN AZTERKETA KUALITATIBOA...	37. orr.
2.1. Nola idazten dute helburuak lortzen dituzten ikasleek? (III. eta IV. mailak)	37. orr.
2.2. Nola idazten dute helburuak lortzeko bidean dauden ikasleek? (II. maila)	39. orr.
2.3. Nola idazten dute helburuak lortzen ez dituzten ikasleek? (I. maila)	40. orr.
3. HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK	42. orr.

Testuen ekoizpen idatziari dagokionez, zer espero dugu ikasleek hirugarren zikloaren bukaeran egitea? Zikloan landutako gaitasun batean ikasleek lortutako maila balioesterakoan, argi izan behar dugu zer espero dugun lortzea, hots, gaitasun horren garapenak eskaturiko maila zein den.

Idazmenari dagokionez, are premiazkoagoa da maila hau zein den argi eta garbi zehaztea. Curriculumetan ez da zehatz esaten ikasleek zein maila lortu beharko luketen. Ebaluazio irizpideetan zerbait aipatzen da, modu generiko eta ez oso zehatzean bada ere. Egoera horrek berarekin dakar ikastetxe bakoitzak, baita irakasle bakoitzak ere, bere aldetik eskakizun-maila ezartzea. Hori hala izanik ere, Nafarroako ikasleen kanpo-ebaluazioa egiteko, maila objektibo eta partekatu samarrak behar ditugu, ebaluazio fidagarria eta baliozkoa egin ahal izateko. Honako hauek dira irizpide horiek:

TESTU IDATZIEN EKOIZPENA 6. KURTSOA

Ikasleen idazkiak balioesteko, alderdi hauek hartuko dira kontuan: testuaren plangintza, egokitasuna, koherentzia eta kohesioa; zuzentasuna eta baliabideen aberastasuna. Hirugarren zikloari egokitutako alderdi horiek honako hauetan zehaztu dira:

Etapako hirugarren zikloa bukatutakoan, ikasleek gai izan beharko dute narrazio testuak idazteko, hots, landutako gaiari egokitutako luzerakoak eta hizkuntza idatziaren berezko erregistroan idatzitakoak. Testuek zentzu orokorra eta koherentzia logikoa beharko dute izan; aurkezpena, korapiloa eta amaiera bereizi beharko dira. Testua paragrafotan antolatu beharko da. Horretaz gainera, perpausak bereizgarriak eta zentzu osokoak izanen dira. Narrazioan sartutako ekintzen sekuentzia logiko-denborazkoa antzeman beharko da eta denboran ez da koherentziarik gabeko jauzirik gertatuko (iraganean, orainaldian eta geroaldian kontatutako ekintzen koherentzia mantendu beharko da). Sintaxiari dagokionez, perpausak ongi eratu beharko dira, komunztadurak eta abar errespetatuz. Azkenik, sormena eta erabilitako hiztegiaren aberastasuna kontuan hartuko dira.

1- EMAITZAK

D hizkuntza ereduko ikasleen proba idatzian bi testu jarri ziren aukeran: bata, narrazio testua, gaztelaniaz eta bestea, azalpen testua, euskaraz. Ondoko lerrootako emaitzak euskaraz landutako azalpen testuari dagozkio. Gaztelaniazko narrazio testuen emaitzak jakin nahi dituzten ikastetxeek edo pertsonak (G zein D hizkuntza ereduko ikasleak) gaztelaniazko idazkiei dagokien azterketa har dezakete erreferentzia puntu modura.

Egokitasuna: luzera egokia eta hizkuntza idatziaren berezko erregistroa erabiltzea

Alderdi hau balioesteko, kontuan hartuko da idazkiak luzera egokia duen eta ikasleak hizkuntza idatziaren berezko erregistroa erabiltzen duen edo, aitzitik, ahozko eta lagunarteko hizkuntzan ohikoagoak diren kodeak erabiltzen dituen.

Ikasle gehienek testuen helburuei egokitutako luzera duten testuak idazten dituzte. Erabilitako erregistro motari dagokionez, emaitzak honako hauek dira: lagineko ikasleen idazkien %47an hizkuntza idatziaren berezko erregistroa erabiltzen da. Ikasleen %35ek ahozko eta lagunarteko erregistroetan ohikoak diren esapideak erabiltzen dituzte. Ikasleen %18k ahozko eta lagunarteko hizkuntzaren kodeak idatziz erabiltzen dituzte.

Koherentzia: zentzu orokorra

Alderdi hau balioesteko, kontuan hartuko da, testuaren zentzuari dagokionez, argia edo, aitzitik, nahasgarria den.

Idazkien %54an argi antzematen da zein den testuaren zentzu orokorra (pertsonea eta egoeren aurkezpen argia; korapiloa eta amaiera koherentea). Idazkien %27an antzematen da zentzu orokorra, baina izan badira testuaren ulermen orokorra zertxobait oztopatzen duten alderdi nahasgarri batzuk. Idazkien %19 modu nahasgarrian eta ez oso argian idatzita daude.

Testu idatziaren barne-kohesioa

Alderdi hau balioesteko, kontuan hartuko da testua perpaus bereizgarri eta zentzu osokoetan antolatuta den, ekintzen sekuentzia logiko-denborazkorik dagoen (jauzirik eza, adierazgailu eta lokailuen erabilera, etab.) eta, azkenik, aditzaldiak oker erabiltzearen ondoriozko denbora-jauzirik dagoen.

Idazkien %43 aipatutako irizpide horiei jarraikiz idatzita daude (irizpide horiek testuari barne-kohesioa ematen diote). Idazkien %37an barne-kohesioko akatsen bat dago (jauziak kontakizunean, jauziak denboran, etab.). Idazkien %20an testuari barne-kohesioa ematen dioten osagaietan akatsak ugari dira.

Idazkiaren zuzentasuna

Alderdi hau balioesteko, funtsean testuaren irakurgarritasunari erreparatuko zaio. Ortografiari dagokionez, fonemen eta grafien arteko elkarrekikotasunari eta hitzen bereizketari erreparatuko zaio eta sintaxiari dagokionez, orobat, perpausak zuzen eraturik dauden edo ez (subjektuaren eta predikatuaren arteko komuntadura...).

Ikasleen idazkien %40 idatzita daude ziklo hau bukatzean eska daitekeen zuzentasun-mailaren arabera. Hots: hitzen bereizketa, fonemen eta grafien arteko elkarrekikotasuna eta sintaktikoki zuzenak diren perpausak. Idazkien %39an akatsak daude alderdi horietan eta %21, berriz, oso gaizki daude idatzita.

Erabilitako baliabideen aberastasuna

Alderdi hau balioesteko, kontuan hartuko dira lehen zikloa bukatzean erabilitako hiztegiaren aberastasuna, kontakizunaren irudimena eta esan nahi zen hura adierazteko hizkuntza erabiltzen jakitea.


Ikasleen %44k beren idazkietan baliabide horiek erabiltzen dituzte, egoki eta zikloan espero daitekeenaren arabera. Ikasleen %31k parte batean erabiltzen dituzte (hiztegia egokia da, baina mugatua; istorioak idazten dituzte, interes handirik gabeak eta bere ideiak adierazteko helburuarekin hizkuntza erabiltzeko erraztasunik gabeak). Ikasleen %25en testuetan hiztegi urria da eta kontatutako istorioa adierazteko hizkuntza erabili behar dutenean zailtasun larriak dituzte.

Balioespen orokorra

Idazkiaren balioespen orokorra egiteko, kontuan hartu dira gorago aurkeztutako alderdi guztiak, hau da, egokitasuna, koherentzia eta barne-kohesioa, zuzentasuna eta baliabideen aberastasuna. Horretaz gainera, testuaren plangintza ere hartu da kontuan.

Ikasleen %45ek ziklo honetarako ezarritako mailak argi eta garbi gaintitzen dituen kontakizun bat idatzi dute. Ikasleen %34k doi-doi lortu dute maila edo lortzeko bidean daude eta ikasleen %21ek ez ditu inolaz ere gaintitu idazmenean ziklo honetarako ezarritako mailak.

Testu ekoizpenaren ebaluazioa
Hirugarren zikloa - Euskara
"Birziklapena"



■ 1. Ez dituzte helburuak lortu □ 2. Lortzeko bidean daude □ 3 eta 4. Helburuak lortu dituzte

2.- IDAZKIEN AZTERKETA KUALITATIBOA

D hizkuntza ereduko ikasleen proba idatzian bi testu jarri ziren aukeran: bata, narrazioa, gaztelaniaz eta bestea, azalpen testua, euskaraz. Ondoko lerrootako emaitzak azalpen testuari dagozkio. Gaztelaniazko narrazio testuen emaitzak jakin nahi dituzten ikastetxeek edo pertsonak gaztelaniazko idazkiei dagokien azterketa har dezakete erreferentzia puntu modura. Hori hala izanik ere, hemen biltzen diren hobekuntza proposamenetan narrazio edota azalpen testuak ageri dira.

Lehen Hezkuntzako aurreko zikloetan bezala, hirugarren ziklo honetan ere ezberdintasun handiak antzeman dira euskararen jakintza- eta erabilera-mailan, baina ez hainbeste zuzentasun gramatikalean. Zenbait ikastetxeek nagusiki euskara ama hizkuntza duten ikasleak hartzen dituzte, beste ikastetxe batzuek hizkuntzan murgiltzeko berezko eredia eskaintzen diete euren ikasleei eta, orobat, beste batzuen egoera bereziagoa da. Ikastetxe bakoitzaren egoera hobekuntza planetan islatu behar da eta une bakoitzean garrantzia (handiagoa edo txikiagoa) eman behar zaie zuzentasun gramatikalarri, baliabide sintaktiko eta lexikoen aberastasunari eta abarri.

2.1- Nola idazten dute helburuak lortzen dituzten ikasleek?

Egokitasuna ikuspuntuari dagokionez

Oro har, testuak aurreko mailetakoak baino luzeagoak dira; informazio gehiago eta ñabardurez beteagoa dute. Azalpen testuak narratiboak baino laburragoak eta 270 hitz ingurukoak izaten dira. Hizkuntza idatziaren berezko kodea erabiltzen dute, betiere ziklo honetako eskakizunen arabera. Ez da lagunarteko esapiderik, ezta ahozko hizkuntzan ohikoak diren egiturarik ere. Maila honetan, ikasleek azalpen testuen berezko erregistroa erabiltzen dute. Testu horien ikusmoldea objektiboa da, informazioa ematekoa, oinarritutako aseberazioak eta abar sartzen direlako haietan.

Koherentzia ikuspuntuari dagokionez

Ikasleek berezko egitura errespetatzen dute: arazoaren sarrera edo aurkezpena edo testua zeri buruzkoa izanen den; testuaren garapen xehe samarra, zeinetan landutako gaiaren gaineko informazio garrantzitsua sartuko den, nolabaiteko ordena eta sistema bati jarraikiz; eta arazoaren soluzioa edo landutako gaiaren amaiera.

Azalpen testuetan definizioak ugari dira eta definizio horien bitartez landu beharreko gaia zein den agertzen digute. Esate baterako: *“Birziklatzea, jada erabilitako hondakin, plastikoa, beira e.a berrerabiltzea da. Honela, ingurunea zaindu egiten dugu”*.

Halaber, argumentuzko egiturak ugariak dira testuaren barnean, amaierara iristeko arrazoiak eta argudioak ekartzen dizkigutenak: ekinaldi batean parte hartzea, edukiontzia erabiltzea, beira berrerabiltzea, etab. Zenbaitetan ikasleek euren buruak ere testuetan txertatzen dituzte eta euren esperientzia pertsonalak kontatzen, baina baliabide erretoriko bat besterik ez da. Testuan azalpen-egitura argiarekin sartutako adibidea da.

Kohesioa ikuspuntuari dagokionez

Eskuarki, maila honetako testuak zentzu osoko unitateetan zatiturik daude. Perpausak puntuen bitartez bereizten dira. Oro har, komak erabiltzen dira perpausen barnean. Maila honetan ageri dira galdera eta harridura markak, beharrezkoak direnean.

Barne-kohesioari dagokionez, esan daiteke, oro har, perpaus batetik bestera igarotzerakoan progresio tematikoa dagoela. Ez da ez jauzi, ez hutsune semantikorik antzeman. Testuaren barne-kohesioa bermatzeko baliabide mota bat baino gehiago erabiltzen dute, bereziki honako hau: perpaus perpaus eta arian-arian, aberasten joaten den eduki tematiko bera mantentzea.

Oro har, aditzaldiak egoki erabili dira. Hala ere, baldintzazko aditzekin arazoak dituzte.

Zuzentasuna ikuspuntuari dagokionez

Zuzentasunari dagokionez, esan daiteke maila honetako idazkiak egoki aurkeztu direla, irakurtzeko moduko letrarekin idatzi direla eta trazaketaren kalitatea onargarria dela. Ortografiari dagokionez, azpimarratzekoa da idazkietan fonema-grafia elkarrekikotasuna eta hitzen bereizketa errespetatu direla. Nolanahi ere, "tz"/"ts" eta "z/s" kasuetan zailtasunak dituzte. Horretaz gainera, maizenik erabilitako hitzen ortografia naturala egoki erabili da. Ez dira asko "h"aren erabileran dituzten zailtasunak.

Sintaxiaren ikuspuntutik, oro har, perpausak ongi eratu dira eta mendeko perpausak erabili dituzte, maiz ongi eraturik, gainera. Hori hala izanik ere, arazoak dituzte baldintzazko perpausekin. Baldintzazko perpausak etorkizunean egiten den ekintza adierazten dute, betiere iraganetik abiatuz. Hala ere, mota horretako perpausak oso gutxi dira eta, gainera, zailtasunez eginak. Halaxe ageri zaigu ondorengo adibide hauetan:

“Nire herrian, nire ustez ongi birtziklatzen da, baina hala ere, hobeto birtziklatzea ongi egongo zen”.

“Birtziklatzea behar-beharrezkoa da gure bizitzan, bestela zabor guztia bilduko da eta hiri kutsakorra izango da”.

“Zerbait ez bada izue non bota, deitu udaletxera eta han zaborraz arduratzen direnek, azalduko dizute”.

“Gure herrian, Zizur Nagusian, zabor hauek hainbat toki desberdinetan botatzen dira, guztiak toki berdinerara bota ezker, kalte handiak sor zezaketelako”.

“Birtziklatzen ez badugu, hondakin batzuk lur azpira doaz, eta hor dauden zaborren artean kutsakorra den zerbait baldin badago, kalte handia sortuko luke”.

Zailtasunak handitu egiten dira alegiazko baldintza erabili behar dutenean: *“leku guztietan birtziklatuko bagenuke, kuxadura murriztuko litzateke”.*

Era berean, mugagabearen erabileran ere zailtasunak dituzte. Ikus adibide hau: *“Edozein tokira bota”, “edozein tokian birtziklatu ahal da”.*

Baliabideen aberastasuna ikuspuntuari dagokionez

Maila honetako idazkiak kurtso bereko aurreko zikloetakoak eta beheragoko mailetakoa baino landuagoak dira. Testuetako hiztegia askotarikoa eta aberatsa da. Gai hau azaltzerakoan, maila honetako ikasleek zinez objektiboa den ikusmoldea erabili dute eta ongi dakite zein den birziklapenaren gaineko berariazko hiztegia.

2.2- Nola idazten dute helburuak lortzeko bidean dauden ikasleak?

Egokitasuna ikuspuntuari dagokionez

Testuen luzerari dagokionez, alde handirik ez dago maila honetakoen eta goragoko mailakoen artean, ikasle askok testu laburragoak idatzi badituzte ere. Oro har, hizkuntza idatziaren berezko kodea erabili dute, betiere kontuan izanik ziklo honetan zer eskatzen den.

Eskuarki, maila honetako ikasleek jadanik kode idatzia bereganatu dute, zenbaitetan ahozko kodearen eragina ageri bada ere.

Koherentzia ikuspuntuari dagokionez

Maila honetako idazkietan gaiaren gaineko funtsezko ideiak ageri dira; hala ere, ez goragoko mailetan bezainbeste. Birziklapenaren gaineko ideiak sartzeaz gainera, gaiarekin zerikusirik ez duten alderdiak deskribatzen edo kontatzen dituzte. Esate baterako: *“Nire ustez ongi dago biltzea zakarrak zeren horrela obeago eta sendoago bisitzeko. Baina ere ez dago oso ongi beti egiten dute edo gauean edo goizean eta nik uste orarioa obeagoa dela arratsaldean...”*. Eskuarki, esan daiteke narrazio testuen berezko egitura dutela: sarrera, gaiaren garapena eta amaiera. Hala ere, goragoko mailekin alderaturik testu hauen egitura arinagoa eta azalekoagoa da.

Kohesioa ikuspuntuari dagokionez

Eskuarki, maila honetako testuak zentzu osoko unitateetan zatiturik daude. Perpausak puntuen bitartez bereizten dira. Testu hauen barne-kohesioaren maila onargarria da. Perpaus batetik bestera igarotzerakoan bada progresio tematikoa, bai narrazio testuetan, bai azalpen testuetan. Adierazgailu logikoak gutxi dira azalpen testuetan. Maila honetan izan badira komarik erabiltzen ez duten ikasleak, komak erabiltzea nahitaezkoa izan arren.

Oro har, aditzaldiak egoki erabili dira. Azalpen testuak orainaldian eta aginteran idatzita daude maizenik.

Zuzentasuna ikuspuntuari dagokionez

Zuzentasunari dagokionez, esan behar da ikasleen idazkiak irakurtzeko moduko letrarekin idatzita daudela eta trazaketaren kalitatea onargarria dela. Ortografiari dagokionez, azpimarratzekoa da idazkietan fonema-grafia elkarrekikotasuna eta hitzen bereizketa errespetatu direla. Nolanahi ere, "tz"/"ts" eta "z/s" kasuetan zenbait zailtasun gertatu da. Horretaz gainera, maizenik erabilitako hitzen ortografia naturala egoki samar erabili da. "H"aren erabilerari dagokionez, akatsak ugari egin dituzte izenordain erakusleak ez diren hitzetan; askotan ez dute "h"-rik idazten (*geiago, zuaitz, asi, artu...*).

Goragoko mailan jadanik adierazi diren zailtasunei gehitu behar zaizkie ohiko aditz-formekin eta deklinabide-kasuekin egindakoak. Maiz subjektuan, ergatiboan, "k"rik ez dute idazten: *"jendea birziklatzen du"*... Desberdin erabiltzen dute singularrean eta pluralean eta idazki askotan nabari da ez dutela oraindik bereganatu: *"Nire gelakoa birtziklatzen dute"*...

Era berean, perpausaren barneko hitz ordenan akatsak egiten dituzte: *"Nire ustez ongi dago biltzea zakarrak"*, *"Etxeke sukaldetan lau edo zakarrentzi izan behar dira..."*,

Baliabideen aberastasuna ikuspuntuari dagokionez

Gorago esan den bezala, goragoko mailetakoekin alderaturik azalpen testu hauek ez daude hain landuak eta ez dute hainbeste informazio ematen. Hiztegia egokia bada ere, ez da hain aberatsa; sintaxia ere ez da hain aberatsa. Gaztelaniatik hartutako hitz gehiago ageri da: (*kontaminazioa, ozono kapa, akumulatu...*).

2.3- Nola idazten dute helburuak lortzen ez dituzten ikasleek?

Egokitasuna irizpideari dagokionez

Testuen luzerari dagokionez, ez dago alde handirik maila honetako testuen eta goragoko mailatakoen artean. Aurreko mailekin alderaturik, esan daiteke testu laburragoak zertxobait gehiago direla. Oro har, hizkuntza idatziaren berezko kodea erabili dute, betiere kontuan izanik ziklo honetan zer eskatu den.

Eskuarki, maila honetako ikasleek ongi idazten dute, zenbaitetan ahozko kodearen eragina agerian geratzen bada ere. Esate baterako: *"papelera mota eta kolore askotako papelerak daude urdina, oria, berdea eta gainera burdinezkoak eta plastikokoak, berdea eta plastikokoak edozein zaborrarako berriz berdean eta burdinezkoak bidrioentzako"*, *"beno bukatzeko papelerak auek edozein lekutan aurkitzen dira eta betetak daudenean..."*; Edo beste adibide hau: *"Oltoa botila batean sartu eta astean behin punto lino pasatzen da eta or bota ahal da. Ah! Eta pilak supermerkatuetan dauden kontenedoreetan"*. Adibide horietan antzeman daitekeenez,

helburuak lortzen ez dituzten ikasle askok ez dute ongi idazten eta ahozko kodearen interferentziak agerian geratzen dira.

Maila honetan dauden ikasleek arazoak dituzte azalpen testuetan berezkoa den erregistroa erabiltzeko: ikusmolde objektiboa, informazio asko eta egokia, oinarritutako aseberazioak eta abar.

Koherentzia ikuspuntuari dagokionez

Alderdi honetan bereizten dira gehien helburuak lortu dituzten ikasleen testuak eta helburuak lortu ez dituztenenak. Maila honetako testuen azalpen-egitura oso eskasa da. Testu horien informazio objektiboa oso eskasa eta garrantzirik gabea da, eta norberaren esperientziak maiz tartekatzen dira. Adibidez: *“nire herrian garbiketa nahiko dexteata da, baina beti dago jendea ez duena birziklatzen...”*; edo, bestela, beste adibide hau: *“Nire herrian egunez eta arratsaldez beira eta pilak edukijontzietara botatzen dugu, eta gauzez kamioiak eramaten dute”*. Horretaz gainera, maila honetan antzematen da premisen eta ondorioen arteko lotura oso ahula eta oinarri eskasekoa dela. Esate baterako: *“Gainera %50 birziklatzen badugu energia sortuko dugu gustien artean. Ez dakigu ze energia mota baina horietariko bat sortuko dugu. Duela 10.000.000 urte kaleak garbiagoak zeuden, eta or bizitzen zirenak ez zekiten ezer. Birziklatzea inportantenetariko gauza bat da”*. Ikus daitekeenez, argudiatzea oso-oso ahula da.

Kohesioa ikuspuntuari dagokionez

Testua zentzu osoko unitateetan zatikatzeari dagokionez, oraindik izan badituzte arazoak. Idazkeraren estiloa hobetzeari begira, ugari dira perpaus errazagoetan zatitu beharko lirakeen perpaus oso luzeak. Ikus honako adibide hau: *“Guk pertsonak birtziklatu ahal genuen paperekin bat orri bat ebilita badago alde batetik eta ez du balio erabili ahal genuen orriareki, beste alde ariketa bat egiteko edo marrazkiren bat egiteko.”* Edo, bestela, beste adibide hau: *“Aldeaketa klimatiko oso garrantzitsua da orregatik zaindu behar dugu kentzeko baina oso zaila izango da jendeak ez badu laguntzen pixka bat baina beno ea lortzen dugu eta atmosfera garbi-garbia-uzten dugu ia imposiblea baina beno al da.”* Bi adibide horietan ikus daitekeenez, ikasleek ez dakite batera puntuazioaren teknika nola erabili behar den. Berdin esan daiteke komen erabilerari dagokienez ere. Oro har, koma gutxi erabiltzen dute eta, hala egiten dutenean, oker erabiltzen dituzte.

Barne-kohesioari dagokionez, oro har, jarioetasun eskaseko progresio tematikoa antzematen da. Hala ere, irakurleak estali beharreko jauzi eta hutsune txiki batzuk antzematen dira maiz. Denborazko adierazgailuen erabilerari dagokionez, bi egoera gertatzen dira. Batzuetan adierazgailuak sartzen dituzte, aurretik deskribatutako mailan gertatu bezala, baina beste kasu batzuetan ikasleek goragoko mailan baino denborazko adierazgailu gutxiago erabiltzen dituzte eta horrek ematen du denborazko sekuentzia homogeneoa erabiltzen dutela (gauza baten atzetik bestea gertatzen dela ematen du), eguneroko bizitzaren denborazko egiturari erreparatu gabe. Honako hau izan da idazkiaren kalitatearen bilakaeraren adierazlea.

Oro har, aditzaldiak ez dira egoki erabili, azalpen testuak orainaldian egoten direlako.

Zuzentasuna ikuspuntuari dagokionez

Zuzentasunari dagokionez, esan daiteke maila honetako idazkiek arazo handi samarrak dituztela. Oro har, grafiaren aurkezpena eta kalitatea gorago aztertutako mailetakoak baino askoz ere okerragoak dira. Ez da arazo grafomotorrik antzeman, maiz letra ez da ongi irakurtzen eta trazaketaren kalitatea txarra da. Idazkiek zikin itxura dute maiz. Ortografiari dagokionez, azpimarratzekoa da idazkietan fonema-grafia elkarrekikotasunean ez dela ia-ia akatsik antzeman. Horretaz gainera, maila honetako idazkietan maizenik erabilitako hitzetan akats ortografikoak ugari dira. Joskera aldetik oker eratutako perpausak ere ugari dira.

Aurreko mailetako zailtasunez gainera, beste hauek ere gehitu behar dira: "h" a modu desegokian erabiltzea, baita erakusleetan ere; "h" a toki desegokian jartzea (*ahū, ahuek, ahuetaz...*), "ere" partikula gaizki erabiltzea ("*ere oso garrantzitsua da birziklatzea*"), perpausaren barnean hitzen ordenarekin zailtasun handiak ("*lau mota paperontzi daude*"), etab.

Baliabideen aberastasuna ikuspuntuari dagokionez

Maila honetako azalpen testuak oso pobreak dira, goragoko beste maila batzuetakoekin alderaturik. Oro har, ez dute inolako baliabiderik erabiltzen azalpen interesgarriak, ongi egituratuak eta ongi idatziak egiteko. Gaztelaniazko termino asko erabiltzen dituzte: "*pesquero bateri red zati bat apurtzen zaio eta izurde bat pilatzen da*".

3. HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK

a) Testu idatzien plangintza hobetzea

Ebaluazio honetan antzemandako akatsetako asko plangintza ezaren ondorio dira. Beraz, komeni da hirugarren zikloan alderdi honi eragitea, ikasleei idazten irakastea garrantzitsua baita. Etapa bukatutakoan, ikasleek teknika hau ikasi beharko dute, idazteko tresna baita.

Ikasleek estrategia bat baino gehiago erabili behar dituzte honako hauetarako:

- Ideiak biltzeko
- Ideiak antolatzeko
- Testua idazteko plana prestatzeko
- Testuaren egitura eskemen eta grafikoen bidez irudikatzeko

Idea-jasa, diagramen edo kontzeptu-mapa errazen erabilera, forma bat baino gehiagoko eskemen erabilera... moduko teknikak oso baliagarriak izan daitezke prozesu hau ikasgelan lantzeko.

b) Testuen egitura hobetzea

b) 1 - Narrazio testuen egituraren gainean

Kontaketa egituraren gaineko lana bultzatu behar da. Narrazio batean tradizioz bereizi izan dira aurkezpena, korapiloa eta amaiera. Honako eskema hau ikasgelan lantzeko baliagarria izan daiteke.

Komeni da aurkezpena lantzea: pertsonaien eta egoeren aurkezpena, ikuspuntu fisikotik zein psikologikotik. Ziklo honetan ongien idazten duten ikasleek gainerako ikaskideek baino aurkezpen hobeak egiten dituzte. Plangintza-aldian alderdi hori landu beharko litzateke. Ikasleek hiruzpalau perpaus erabili behar dituzte xede horretarako.

Ekintzaren garapenari dagokionez, ikasleek argumentuaren lerro bakar eta argi zehaztuari jarraitu behar diote. Era berean, argumentuaren lerroarekin zuzenean loturik ez dauden eta, tramaren arabera garrantzitsua denetik, irakurlearen arreta desbideratzen duten ekintzak eta egoerak ez sartzen ahalegindu beharko dute. Hala, argumentu sendoago eta koherenteagoak lortuko dira.

Argumentuaren lerroaren koherentzia landuko da zailtasun handiagoak dituzten ikasleekin; azpimarratu beharko zaie lokailu gutxiago erabili behar dutela (kausazkoak, tematikoak, etab.) eta ez dituztela perpausak lotura tematikorik eta logika sendorik gabe lotu behar.

Era berean, azpimarratu behar da aurkezpen argia, garapen aski esplizitua eta garapenarekin koherentea eta harekin bat datorren amaiera egin behar dutela. Horregatik, alderdi hau landu behar da eta argi ezarri zer gertatzen zaien protagonistari eta gainerako pertsonaiei eta ondorengo egoerak eta ekintzak denboraren lerro sekuentzian antolatu behar direla.

Zailtasun gehiago dituzten ikasleekin, ziklo honetan denbora-sekuentzia linealak eta errazak landuko dira eta ezein konplexutasun saihestuko da, ikasleek hartarako hizkuntza tresnak ongi ikasi arte. Zailtasunik ez duten ikasleekin trama landuxeagoak erabil daitezke.

Amaierari dagokionez, ebaluaturiko ikasleen idazki batzuetan ez da ongi lortu nahi zena. Horregatik, une horri arreta berezia egin behar zaio; saihestu behar da nekaturaren ondorioz ideiak bukatu direnaren sentsazioa, amaiera azkar eta zakarra eragiten duen hori. Amaiera planifikatu behar da. Kontuan izan behar bada ere ziklo honetako amaierak beti oinarrizkoak izanzen direla, ez dute zertan uneko inprobisazioaren edo inspirazioaren arabekoak izan.

Narrazio testuaren antolaketa formalari dagokionez, ziklo honetan ikasleek testua paragrafoka antolatzen ikasi behar dute, hau da, ideien batasunari erantzuten dioten paragrafoak egiten.

b) 2 - Azalpen testuen egituraren gainean

Azalpen testuei dagokienez, ebaluazio honetan antzeman da ikasle askok ez dakitela azalpen testurik egiten. Gaur egun, esaten da azalpen testu baten zatiak honako hauek direla: sarrera, gaiaren garapena eta amaiera. Ikasgelan lantzeko eskema baliagarria izan daiteke hori.

Ikasleek sarrera landu eta gaia argi aurkeztu behar dute, aski informazio emanez eta era motibagarrian. Horretarako zenbait perpaus erabiliko dute (hirutik sei bitartean izaten ahal dira). Sarrera hori testuaren lehen paragrafoa izan daiteke.

Garapenari dagokionez, ordena logikoa eta progresio tematikoa behar ditu izan (plangintza onaren garrantziaren seinale). Idazki askotan ikusi da informazioa modu asistematikoa sartzen dutela, burura etorri bezala-edo, garrantziaren arabera ordenarik eta hierarkiarik gabe (alderdi aspergarriak kontatzeko toki asko hartzen dute eta zerbait garrantzitsua esateko, aldiz, gutxi). Garrantzitsua da ikasleek ulertzea azalpen testu bat egiteko argibideak eta azalpenak ematen dituen hizkuntza erabili behar dela.

Testu askoren ikusmoldea narratiboa eta subjektiboagoa zen, azalpenezkoa eta objektiboa baino gehiago. Ez dugu ahaztu behar zein den testu hauen funtzio erreferentziala: ikaslearen errealitatea transmititzea eta ez subjektibotasuna islatzen duen mezu bat transmititzea. Garrantzitsua da hiztegia zaintzea. Ikasleek curriculumeko arloetan jasotako hiztegiko hitzak sartuko dituzte testu hauetan. Ahalegina egingen da ikasleek alde aurretik bereganatutako kontzeptuak eta hiztegi tekniko eta zientifiko samarra erabili ditzaten. Nortasun semantikoko zenbait paragrafotan antolatuko da zati hau.

Amaierari dagokionez, oro har ikusi da amaierak erretorikoagoak direla logikoak baino gehiago. Behin eta berriz azpimarratu beharrekoa da amaierak izan behar duela sarreran eta garatutako argumentuaren harian planteatutako gaiaren ikusmoldearen ondorio logikoa eta argumentuaren logikagatik beragatik bukatu behar duela testuak. Oso idazki gutxitan ageri da ikusmolde hori.

c) Aurkezpena eta ortografia hobetzea

Ziklo hau bukatzean, ezein ikaslek ez luke Bigarren Hezkuntzara igaro behar ez baditu alderdi honi dagozkion helburuak lortu. Ikasle askok egiten dituzte akatsak idazkiaren aurkezpenean, garbitasunean eta antolaketan eta ziklo honetarako oinarrizko ortografian.

Presaka idazteagatik edo utzikeriagatik, ikasle batzuen (halere, ez askoren) letra ez da behar bezala ulertzen. Gaur egun, eskuz idazteko ohitura alde batera uzten ari da, ordenagailuz idazten delako. Hala ere, talde honekin eskuz idaztea landu beharko litzateke. Alderdi formalak izanagatik ere, ez genituzke bigarren maila batean utzi beharko testu idatziak lantzerakoan eta balioestekoan.

d) Perpausen sintaxia eta testuaren barne-kohesioa hobetzea

Ziklo honetan lantzen segitu behar den alderdietako bat hauxe da: berbaldia puntu batek bereizitako perpausetan zatikatzea. Oraindik badira ikasleak idazketan hain oinarrizkoa den alderdi hori ongi egiten ez dutenak. Ezein ikaslek ez luke Bigarren Hezkuntzara igaro behar helburu hori lortu gabe. Sintaxiaren ikuspuntutik abiaturik, perpausa unitatea da. Horrenbestez, alderdi horretan zailtasunak dituzten ikasleekin landu beharko litzateke zatiketa, hots, puntu batek bereizitako perpausak egiten ikastea.

Puntuazioaz gainera, hirugarren zikloan komen erabilerari ere erreparatu behar zaio. Alderdi hori loturik dago perpausen luzerarekin eta konplexutasunarekin. Ziklo honetan ikasleei eskatu behar zaie aurreko zikloetan egiten zituzten perpausak baino luzeagoak eta konplexuagoak egin behar dituztela. Ziklo honetan komak egoki erabiltzea funtsezko helburua da. Horregatik, komeni da alderdi hori lantzen joatea.

Perpausen egiturari dagokionez, subjektuaren eta predikatuaren arteko komunztadura bereziki landu behar da, bereziki luzeak eta konplexuak diren perpausetan. Ikasleek hasieran oinarrizko egiturak dituzten perpausak eginen dituzte eta, arian-arian, konplexutasun sintaktiko handiagoak egiten hasiko dira, esate baterako, juntadurazkoak, mendekoak eta abar. Urrats hori ikasleekin esplizituki landu behar da. Era berean, ikasleek pixkana-pixkanaka kontzientziatu behar dute kode idatzia ez dela ahozko kodea bezalakoa (hau da, ez dutela hitz egiten duten bezala idatzi behar).

Hori hala izanik ere, testua kalitatekoa izateko ez da aski ongi eratutako perpausak egitea. Batzuk besteekin ongi lotu behar dira, testua barnetik kohesionaturik dagoela esan ahal izateko. Alderdi horri dagokionez, azpimarratu behar da erreferenteak (izenordainak, izen sinonimoak, osagai anaforikoak, etab.) eta testu-adierazgailuak eta -lokailuak erabili behar direla. Horretaz gainera, ahalegindu beharko da testu idatziko perpausen artean hutsunerik egon ez dadin.

Halaber, beste alderdi bat ere landu behar da: aditzaldi egokiak erabiltzea narrazio osoan zehar. Narrazioaren denbora zaindu behar da (iragana, orainaldia eta geroaldia); denbora batetik bestera zuzen igaro behar da. Ziklo honetan gutxieneko helburua da narrazioak aditzaldiak erabiliz egitea.

e) Hiztegi aberatsaren eta askotarikoaren erabilera hobetzea

Alderdi honek bereizten ditu idazten gaitasun handiagoa duten ikasleen idazkiak eta hainbesteko maila ez dutenenak. Hiztegiaren aberastasuna loturik dago maila soziokulturalarekin eta familiako giroarekin, irakurtzeko zaletasunarekin eta ohiturarekin eta abarrekin. Hala ere, eskola ingurunearen eragina oso garrantzitsua da hiztegia aberastu nahi dugunean. Adjektibo bereizgarriak, ekintzak testuinguruan kokatzen dituzten adberbioak, errepikatutako hitzen sinonimoak eta abar bilatuz gero, alderdi hau pixkana-pixkanaka hobetuz joanen gara. Lehenago ere nonbait esan da zein garrantzitsua den azalpen testuetan hiztegia lantzea.

f) Testuen gainbegiraketa hobetzea

Plangintzak bezala, gainbegiraketak idazmena hobetzeko balio du.

Honako hau gainbegiratu daiteke:

- Testua irakurtzeko modukoa den, letra argia duen, testua garbi eta ordenatua dagoen, testuak marjinak dituen, etab.
- Narrazio testuetan, testuak aurkezpena, korapiloa eta amaiera ongi bereizturik dituen eta hiru zati horiek sei paragrafotan gutxienez antolaturik dauden (aurkezpenerako, bat; argumentuaren garapenerako, lau; eta amaierarako, bat).
- Azalpen testuetan, testuak sarrera, garapena eta amaiera ongi bereizturik dituen eta hiru zati horiek sei paragrafotan gutxienez antolaturik dauden (aurkezpenerako, bat; garapenerako, lau; eta amaierarako, bat).
- Koherentzia eta kohesioa bermatzen duten terminoak erabili dituen, hala nola, "hasieran", "gero", "geroago", "azkenean", etab.
- Perpaus bakoitzaren ondoren puntu bat jarri duen, puntuaren ondoren letra larria idatzi duen, harridura eta galdera markak idatzi dituen, elkarrizketetan marra luzea idatzi duen eta, oro har, ortografia akatsik egin duen. Komen erabilerari ere erreparatuko zaio.
- Testua ulertu duen eta perpaus batetik bestera igarotzeko ez dagoen jauzirik.
- Kode formalaren arabera idatzi duten edo hitz egiten duten bezala idazten duten (ahozko kodearen kutsadura).

Laburbilduz, ebaluazio honen emaitzen arabera honako hauek dira hobekuntza arloak:

Hirugarren zikloa
Hobekuntza arloak testu idatzien ekoizpenean

- a) Narrazio- zein azalpen-testu idatzien plangintza hobetzea
- Ideien bilketa: kontsulta bibliografikoak, Internet, liburuak, etab.
 - Ideien antolaketa.
 - Ideiak biltzeko eta antolatzeko zenbait teknika erabiltzea
- b) Narrazio- eta azalpen-testuen egitura hobetzea
- Narrazio testuetan, argi bereiztea aurkezpena, korapiloa eta amaiera. Azalpen testuetan, argi bereiztea sarrera, garapena eta amaiera.
 - Narrazio osoan argumentuaren lerro bakar eta zehatza izatea. Lerro hori narrazio osoan mantenduko da. Narrazioen ekonomia bilatzea (garrantzirik gabeko ekintzak eta egoerak ez sartzeko ahalegina egitea). Azalpen testuetan, argumentuaren lerroa era logikoan eta ordenatuan garatzea.
 - Pertsonaiak eta nahikoa garaturik dauden egoerak aurkeztea (lau perpaus erabiliz, gutxienez). Azalpen testuetan, sarrerak argiak eta motibatzaileak izatea.
 - Askaera progresiboak eta koherenteak, zakar bukatzea saihestuz: argumentuaren garapenarekiko koherentzia bilatzea. Azalpen testuetan, bukaera oinarrituak eta koherenteak izatea.
 - Idazkia paragrafo koherentetan antolatzea.
- c) Aurkezpena eta ortografia hobetzea
- Aurkezpen ona, garbitasuna, marjinak, etab.
 - Irakurtzeko moduko letra, ahal bada ongi trazatua eta uniforme.
- d) Perpausen sintaxia eta testuaren barne-kohesioa hobetzea
- Testua perpaus osoetan egoki zatitzea.
 - Ongi eratutako perpausak.
 - Subjektuaren eta predikatuaren arteko komunztadura.
 - Perpaus bakunekin hasi eta perpaus elkartuetara jotzea (juntaturazkoetara eta mendekoetara).
 - Aditzaldien erabilera egokia.
 - Testu-erreferente, -adierazgailu eta -lokailuak erabiltzea.
 - Progresio tematikoa, perpausen artean jauzirik egin gabe.
 - Erabilitako kodea zein den kontzientziatzea, ahozko eta lagunarteko kodeko kutsadurak saihestuz.
- e) Hiztegi aberats eta askotarikoaren erabilera hobetzea
- Izen eta aditz mota bat baino gehiago erabiltzea
 - Adjektiboak eta adberbioak erabiltzea (pixkana-pixkanaka sartzen joatea)
 - Sinonimoak erabiltzea, errepikapenak saihesteko.
- f) Testuen gainbegiraketa hobetzea
- Hasieran, taldean eta ahoz, eta bukaeran, bakarka.
 - Gainbegiraketarako irizpide bat baino gehiago erabiltzea.

ERANSKINA

HOBEKUNTZA LERROAK EZARTZEKO ORIENTABIDEAK

TESTU IDATZIEN EKOIZPENEAN

Hona hemen, aukeran, zenbait iradokizun, ikastetxeek testu idatzien ekoizpenean hobekuntza lerroak ezar ditzaten. Bere autonomia erabiliz eta KPBN antzemandako errealitatearen eta beharren arabera, ikastetxe bakoitzak egokitu eta osatu ditzake edo horien ordean bere ingurunean egokiagoak diren beste batzuk ezarri.

Lerro hauek bat egiten dute aurreko kurtsoetan landutako hobekuntza planetako helburuekin. Haiek ere lantzen segitu beharko da, antzemandako hutsunerik garrantzitsuenak azterturik, behar den zikloko irakasleek eta arloko adituek prestatu dituzten ebaluazioaren eta azterlanen emaitzek zehaztu ondoren.

Zuzendaritza taldeei laguntza emateko dokumentu bat da hau, urteko plangintza egin dezaten, hobekuntza planei dagokienez. Ikastetxe bakoitzak bere errealitatea du. Hori hala izanik ere, argi eta garbi dago testuen ekoizpena hobekuntza arloa dela Nafarroan, testu idatzien ekoizpenari dagokionez zikloko helburuak lortzen dituzten ikasleak ebaluaturiko beste arlo batzuetan lortzen dituztenak baino gutxiago direlako.

1 Lehen hobekuntza lerroa

Ziklo bakoitzean zein maila landu eta eskatu behar den argi eta garbi ezartzea testu idatzien ekoizpenean

Antzeman da zenbait ikastetxeek ez dutela argi zein diren ziklo bakoitzean eskaturiko mailak eta ziklo horretan zer landu beharko litzatekeen. Azter ezazu zein den zure ikastetxearen egoera puntu honetan eta egoera hori hobetu daitekeen laneko lerro hau hobetuz. Ez dira termino generikoak dituzten dokumentuak; irakasle bakoitzak argi izan behar du zer eskatzen den zikloan, praktikan jartzeko eta ikasleei eta gurasoei transmititu ahal izateko.

Honekin batera igorri dizugun dokumentazioan baduzu aski informazio alderdi hau ikasturtean landu ahal izateko. Horretarako zenbait lan-saio egingen da, KPBN koordinaturik. Horretaz gainera, zikloetan ebaluazio koadernoak daude, Nafarroako lagin-azterketa egiteko erabili diren ikasleen testuekin.

2 Bigarren hobekuntza lerroa

Ziklo bakoitzean testuen ekoizpena lantzeko lerro metodologiko komunak ezartzea

Azter ezazu zure ikastetxeko zikloko taldeek lerro metodologiko komunak ezartzen dituzten (ez da aski dokumentu batean denak bildurik izatea), irakasle bakoitzak ezarritako estiloa babestuz, estiloa norberarena baita eta irakaslanari balioa ematen baitio. Bada gaiaren gaineko bibliografia interesgarria, eskuratzeko modukoa eta irakurtzeko erraza. Zure ikastetxean ez badago, ILZko liburutegian eskuragarri izanen duzu. Era berean, ILZn ere aholkua eska dezakezu.

3 Hirugarren hobekuntza lerroa

Idazmenaren zuzentasuna homogeneizatzea.

Ez da erraza hizkuntza idatzia kuantifikatzea eta neurtzea. Zenbait neurri hartu behar izaten da irakasleek modu berean eta irizpide partekatuekin testuak zuzendu ahal izateko. Horixe izan zen lagineko idazkiak zuzendu zituzten irakasleek egin zuten lehen lana. Ez dira zehaztapen eta argitze metodologiko soilak (horiek ere oso garrantzitsuak badira ere); kontua da irakasleek zuzentasunari dagozkion alderdiak berdin balioestea.

Zuen ikastetxean zuzentasunaren arloan homogeneizazio eza badago, sar ezazue lan lerro hau kurtsoko plangintzan. Praktikara eramateko metodologia oso erraza da. Lan honetan hasteko, nahikoa da zikloa koordinatzeko zenbait bilera egitea, baina horretarako bakarrik. Beste kontu batzuetan bezala, zenbat eta gehiago sakondu, hainbat eta hutsune gehiago antzeman. Dena dela, garrantzitsuena da zure ikastetxeko irakasleen artean sentsibilitate hori piztea eta lantzea.

4 Laugarren hobekuntza lerroa

Testu idatzien ekoizpena praktikan jartzeari eta haiek ebaluatzeari buruzko adostasunak lortzea zikloetan

Laugarren eta bosgarren lerroak ikasgelan egindakoari dagozkio. Aurreko lerroak beharrezkoak eta eraginkorrak dira, baina ikasgelako irakaslanean gauzatzen ez badira, zaila izanen da ikasleen idazteko gaitasuna hobetzea. Beraz, laugarren lerroak zerikusia du zikloko eta etapako irakasleek idazmena lantzeko eta ebaluatzeko hartu behar dituzten erabaki eta konpromisoekin. Zenbatean behin landuko da idazmena? Nahikoa da idazki bat egitea hiru hilean behin, hilean behin edo hamabostean behin? Zikloek halako erabakiak hartu beharko dituzte. Baita ebaluazioa zenbatean behin egin behar den ere.

5 Bosgarren hobekuntza lerroa

Ikasle bakoitzaren jarraipen banakakoa eta dokumentatua egitea.

Etapan honetako irakasleen ohiko jarduera da hau. Irakasleek aurretik ezarritako eta bereganatutako lan-lerroa hobetzea da kontua; gainera, gurasoek ere eskertzen dute euren seme-alaben gainean ematen zaien informazioa. Laneko tresna ona izan daiteke banakako fitxa egitea, ikaslearen aurrerapena diagnostikatzeko eta erregistratzeko.